


guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA





JUANTXO
MADARIAGA
ORBEA

"Betidanik izan da Itxasperri bailararen gune zentrala"

Erdi Arotik Santiago ermitak Arakilen izan duen garrantzia "oso handia" izan dela esan du Juantxo Madariaga Orbea Arakilgo zinegotziak eta historialariak

Erkuden Ruiz Barroso

Garai batean, Arakilgo udal batzarrak Itxasperriko Santiago ermitan egiten ziren, are gehiago, atearen ondoan etxe bat gehitu zioten, bertan batzarrak egin ahal izateko. Erdi Arotik Itxasperri arakildarren "gune zentrala" izan dela esan du Juantxo Madariagak. Urtero, ohiturari jarraiki, Santiago egunean Arakilgo Bailararen Eguneko zenbait ekitaldi ospatzen dituzte.

Batzarrak

"Itxasperri ez zen batzarrak egiten ziren toki bakarra. Udaletxerik ez zegoenean, nahiko kontu modernoa baitira, non biltzen ziren udalak? Elizan". Itxasperri Arakilgo bailararen batzarrak egiteko tokia zela esan du Juantxo Madariaga Orbeak. "Neurri

batean udaletxea hau zen". Elizari itsatsita eraikin bat egin zuten, elizatik kanpo bilkurak egin ahal izateko. Udaletxea egin zutenean eraikina bota egin zuten. Itxasperri eraberritu zuten garai horretan ere, 1980ko hamarkadan. "Dena den, Hiriberrin ere bulego bat zegoen, baina sinbolikoki Arakilgo gune zentrala hau izan da".

Itxasperritik "bide oso inportante" bat pasatu izan da "betidanik": erromatarren garaietan Astorga eta Bordele elkartzen

"Ermita erromanikoa da, xumea; salbuespen moduan, errosetoi bat dauka"

zituena galtzada nagusia. "Oso bide garrantzitsua izan da, ez bakarrik Arakil, Sakana edo Nafarroan, Europan ere bai". Atlantikora joaten zen bidea zen, eta, horrekin lotuta, tradiziozko ogibide bat zegoen, mandazainak. "Egiarretan, adibidez, garai batean, gehienak mandazainak ziren".

Erdi Aroan, aurretik bide erromatarra izandako hori "baliatuta" Santiago bideko adar bat pasatzen hasi zen. Bide asko daudela azaldu du Madariagak, kostaldekoa, frantsesa... Baina garai bateko garrantzitsuenetarikoa "bide hau" izan zen. Ez da kasualitatea, azaldu du Madariagak, bide horretatik gertu Zamartze, Santiago Itxasperri edo Iturmendiko Aitzaga ermita erromanikoak eraiki izana.

Erromanikoa

Santiago Itxasperri ermita erromanikoa da, nahiko umila, xumea. "Azken finean, erromaniko pobrea da": leiho gutxi, ate gutxi eta, erromanikoen artean, salbuespen moduan, errosetoi bat dauka. Historiaren momentu batean arazoak izan ziren eta eraikuntza alde batetik erortzen hasi zen, "horregatik kontrafuerteak ditu. Absideko leihoa tapatuta dago kontrafuerteak jarri zituztelako". Gotikoan horrelako arazoei aurre egiteko teknika aurreratua goak zeudela azaldu du Madariagak, "baina erromanikoan ahal zutena egiten zuten".

Apaindura gutxiko ermita da. "Barrutik ez du ia ezer, apaindura bakarria naturako elementu batzuk dira, eta barruan bi kapitela xume ditu". Nabarmenezkoa XVII. mendeko bataiarria da, "meritu handikoa", baina bestela oso soila dela esan du historialariak. "Ez du erretaularik ere".

Santiago eguna

Santiago egunean, uztailaren 25ean, arakildarrak Itxasperrin biltzen dira. Ondoren, azken urteetan, bailarako herriren batera

joaten dira ospakizunarekin jarraitzeko, baina lehenengo topaketa ermitaren inguruetan egiten dute. Mendeetan zehar egin duten ohitura dela esan du Juantxo Madariaga Orbeak: "Erdi Aroan, ez dakigu zehazki noiztik, egiten zen feria batekin lotuta dago. Santiago bezperan eta Santiago egunean, bi egunez, feria erraldoi bat egiten zen, inguru honetako inportanteena". Denborarekin, Irurtzungo feria garrantzia hartzen joan zen, baina hasieran Itxasperrin egiten zen feria garrantzitsuagoa zen.

"Badaukagu XVI. mendeko dokumentu bat non azaltzen den Itxasperriko ferian istiluak izan zirela eta hildako bat egon zela. Epaiketean lekuko batek esan zuen aspalditik, antzin-antzinatik, ospatzen zela feria eta Nafarroa osotik, Iruñerriatik eta abarretatik jendea etortzen zela". Oso feria garrantzitsua zela agertzen da dokumentuetan, bi egun irauten zuela, eta ganadua eta nekazal produktuak salerosten zituztela. Erdi Arotik ospatzen zen, beraz, Santiago eguna eta horregatik gaur egun ere Santiago bailararen eguna da.



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





MARI CARMEN
ELUSTONDO
ASIAIN

"Hemen jolastu eta ikasten nuen"

Joan zen baina arrastoak hor dauden Irurtzun baterako bidaiia



Alfredo Alvaro Igoa

Irurtzongo goiko partean, hiru eraikinek plazatxo bat osatzen dute: apaizetxeak, kultur etxe-ko auditorioak (eliza zaharra) eta kultur etxea (nesken eskola zaharra). Txokoak "haurtzaroko oroitzapen on asko" sortzen dizkio Mari Carmen Elustondo Asiaini, "eskolako atsedendian hemen eta zelaian jolasten bainekin". *Balon prisionero*, tabekin jolastu, laster egin, soka saltoan... denetarik jolasetan aritzen ziren. "Elurra egiten zuenean, aitek, auzolanean bi-dea egiten zuten", gogoratu du Elustondok.

Aukeratu duen tokiaren aldamenean Montiko dago, "gaur egun aitona-amonon parkea deitzen diote". Elustondok aitortu du Irurtzunez duen ikuspegiak maiteminduta dagoela. Bere gogoko tokiaren ondotik "Biahizpe oso ongi ikusten da, mendi guztia ikusten da, Trinitateko ermita ere bai".

Garai batean "kultur etxe-ko beheko solairuan nesken eskola zegoen. Eta mutilen eskola pabiloi baten modukoa zen eta gaur egungo musika eskolaren beheko solairua hartzen zuen, haren bukaeran mutikoen komuna

zegoen". Kultur etxe-ko sarrera garai batean irakaslearen etxerako sarbidea zen. "Atzean pasabide bat zegoen, mutilen eskolarekin komunikatzen zuena, atzean irakasleek zuten baratze- eta nesken komunera eramaten zuena. Ikasgelan bi leiho genituen, orain bezala".

Irakasleak

Haur irurtzundarren heziketaz emakumezko eta gizonezko irakasle bana arduratzen ziren. "Nesken eskolaren gainean irakasle batendako etxea zegoen. Txikia nintzela bikote bat bizi izan zen, biak irakasleak ziren. Haiek joan eta irakasle aldaketa ugari izan genituen ondoren". Elustondok ez du irakasleen oroitzapen txarrik, "beharbada irakasle gazteagoak izan genituen. Batzuek, ordea, oroitzapen txarra dute". Irakasle haiek adin guz-

"Irurtzun merkataritza herria izanik, ikasle guztiek bukatzen zuten eskolatzeko prozesua"

tietako ikasleak batera hartzen zituzten eta ikasgai guztiak ematen zizkieten. 14 urteetarako ikasten zuten eskolan, "ia-ia entziklopedia berarekin egoten ginen".

Egurrezko estufa batekin berotzen zen ikasgela. "Ikasleok piztu behar genuen. Kea sortzen zenean, hura okerragoa zen, leihoak zabaldu behar genituelako. Hotz handiagoa egiten zuen, baina ohituago geunden, ez baikeuen arropa egokirik. Oroitzapen onak ditut". Gaineratu duenez, "esne hauts famatu hura ematen hasi zirenean geuk egosi eta banatu behar izaten genuen". Elustondok jakinarazi duenez, "ahal genuenok, ordainduz, bakarkako klaseak jasotzen genituen, eta pixka bat gehiago ikasten genuen". Irurtzunez, gainera, haur eskola zuen. Hura kontzeju etxean zegoen (Pikuxarren parean dagoen etxe bat).

Elustondok 14 urterekin ikasketak akaberako azterketa egin zuen, "pixka bat lehenagora arte ez zen halakorik egiten". Oinarritzko ikasketak ziurtagiria edo eskolaratze titulua jaso zuen. "Irurtzun merkataritza herria izanik, ikasle guztiek bukatzen

zuten eskolatzeko prozesua. Ahalmen handiagoa zutenenek, edo beste ikuspegi bat zuten gurasoak zituztenak, gehiago ikastera joaten ziren. Halako asko egon dira".

Bestetik, Elustondok argitu du apaizetxean katekesia jaso zuela. "Apaizak jolas gela baten modukoa prestatu zuen eta igandeetan partxisera eta makina bat jokotan jokatzera etor gitezkeen. Etxe aberatsez aparte, Irurtzunen jarri zen aurreneko telebista apaizak jarri zigun parrokia zentroan. Igandeetan etortzen ginen".

Jolas tokiak

Elustondo arratsaldeetan gehien jolastu den tokia gaur egungo Gernika plaza da. "San Martin kalean bizi nintzen, baina etxearen atzeko aldeak orduko azokako txerrien plazara ematen zuen. Eta auzoko guztiak plaza hartan elkartzen ginen". Hura guztia zelaia zen, "eta toki guztietatik ibiltzen ginen, hementik, handik, ubeldera jaisten ginen. Ibaikoa oso paraje ederra zen, guztia txipudia baitzen. Itsesiara... San Martin kalea zeharkatzen beste auzo batean geunden".





BEA
MEZKIRIZ
IRIBARREN

"Ingurunea sekulakoa da, oso ederra"

Hariztia bargapean; eta lasaitasun paraje horretan, borda bat

Alfredo Alvaro Igoa

Irurtzungo goiko partean, hiru Dermioko larreak bukatu eta bargapeko hariztian sartuta, berehala, hariztiko bidean barna 325 bat metro egindakoa, eskuinera agertzen da Basakoetxea. Behor batzuen fale hotsak entzuten dira basoan barna. Hegaztiren batzuek kantua, haizeak mugitutako hostoak eta gutxi gehiago entzuten da. "Asko gustatzen zait tokia. Ingurunea sekulakoa da! Oso ederra. Ez nau aspertzen", azaldu du bordaren kanpoko aldean eserita Beia Mezkiriz Iribarrenek. La-

saitasun bila joaten da hara irintarra.

Txakurrekin joaten da Basakoetxeara. Bi animalia ditu: Tango (golden retriever, heldua) eta Lau (arratoi-txakurra, gaztea). "Haiek paseatzera etortzen naiz.

"Asko gustatzen zait tokia. Ingurunea sekulakoa da! Oso ederra. Ez nau aspertzen"

Lau bakarrik ibiltzen da, bere albiziora. Piztiaren baten arrasto bat hartzen duenean galdu egiten da. Bitartean Tango eta biok zain egoten gara". Jakinarazi duenez, txikia gehiago ibil daiteke, handiak gaitza du eta ezin da hainbeste ibili. Azaldu duenez, "txakur txikiarekin, batzuetan, Beriainera igotzen gara bikotekidea eta biok. Ez dut ukatuko, igotzean sufritzen dut, baina, behin goian, hura ikusgarria da". Izan ere, Basakoetxea atzean utzita, bidean gora egin eta mendi gainera iritsi daiteke oinezkoa.

Mendira igo nahi ez dutenek eta haritzen itzalpean ibili nahi dutenek, horretarako aitzakia ederra dute: 2009tik Nafarroako Gobernuaren natura monumentu izendapena duten bost haritzak bisitatzea. Mezkirizek azaldu duenez, "hemen gutxitan topo egiten dut jendearekin. Asteburuetan, beharbada, gehiago,

mendizaleren bat. Gorago ere, oso polita da".

Bide borobila

Autobiako zubitik ezkerredera egin eta bi bide ateratzen dira bargarantz: Buztiñetako bidea eta Zabalbidea. Azken horrek zuzenean bordara eramaten du. Aurrenak ere, baina egoera okerragoan dago. Bidezirkularra osatzen dutenez, batzuetan Buztiñetatik igo eta Zabalbidetik jaisten da Mezkiriz. Azken bide horren izenak inguru hartan zegoen Zabal despoblaturari egiten dio erreferentzia. Bidearen goiko partean dagoen abeltegaren parean, larre batzuen mugan, naturak jandako San Pedro Martir ermitaren aurriak daude.

Irintarrak aitortu duenez, Urruntzurreko iturburu ere asko gustatzen zaio Mezkirizi, "baina txakurrek kasu handirik egiten ez didatenez, eta hemendik jende gutxiago etortzen denez, nahia-

go dut hona etortzea. Hark merkatalgune bat dirudi, jende asko baitabil, eta ubeldea atera bada, gehiago: batekin eta bestearekin hizketatzera gelditzen zara eta, azkenean, paseatu beharrean beste edozer egiten duzu". Argitu duenez, "irintarrekin gustura nago, baina ibiltzera ateratzen denean hori egin nahi dut". Horregatik doa bargarantz, "egitekoak laster egiteko".

Bordak zein erabilera duen galdetuta, irintarrak azaldu duenez, "garilean meza bat egiten dute bertan. Aitaginarreba hilabete horretan hil zenez, haren aldeko elizkizuna egiten zen. Bordan egiten den mezaren ondoren otamena izaten da". Jakinarazi duenez, borda alokatzeko aukera ematen du udalak. Urtebetetzaren bat, ezkontza bateko ospakizuna... Irañetako Udalak betidanik nahi izan du borda erdigune duen aisialdi eskaintza ematea, batez ere ikastetxeei eta halakoei zuzenduta.





ASIER
ORDOÑO
DAUBAGNA

"Zamartze oso leku lasaia da, bitxia eta espirituala"

Asier nekazari agro-ekologikoarendako Zamartze da Uharthe Arakilgo txokorik bereziena, "historia asko duelako, leku oso lasaia delako eta espirituala delako"

Maidar Betelu Ganboa

Asier Ordoño Daubagna nekazari agro-ekologikoa da eta Uharthe Arakilgo bizilaguna 2021eko ilbeltzetik. "Aurretik bizpahiru urte egon nintzen Arruazun eta hori baino lehen amonaren baserrian, Urarten, Araban". Gasteiztarra sortzez, Arkauten

ekoizpen agro-ekologikoa ikasi "eta nire bokazioa aurkitu nuen". Ondoren Artzain Eskolan trebatu zen eta amonaren baserrian ahuntzen artisau gazta egiteko proiektu profesional bat martxan jartzen saiatu zen. "Baserrian baratzea eta fruta arbolak genituen, baina lursail handi bat

behar nuen proiektu profesionala aurrera ateratzeko, eta ez nuen lortu. Herrian 15 bizilagun zuden eta inork ez zidan lursailik saldu, nahiz eta guztiak jubilatuta egon. Paradoxa." dio.

Ekoizpen agro-ekologikoa ikasi zuenean, praktikak Arruazun egin zituen, Albi gaztandegian. Anaiaren neska laguna arruazuarra da, Arantxa Satrustegi, eta hark animatu zuen. Amonaren baserriko proiektuak aurrera egin ez zuenez, Arruazu inguruetan lursail bat bilatzen hasi zen. Uharthe Arakilen topatu zuen, Amurginen, Uharthe Arakilgo baserrietatik gertu. Lakuntzako lursailetatik hurbil, Santa Luzia ermita ondoan. Orduetik uharthe arakildarra da, eta "poz-pozik" dago, baina aitortu du beroagatik "denboraldi oso gogorra" izaten ari direla. "Beroarekin landareek sufritzen dute, animaliek sufritzen dute, -baratzea eta oiloak ditu-, eta guk ere sufritzen dugu. Baina pila bat ikasten ari naiz, hau nire bokazioa baita" nabarmendu du, bigarrenez.

Uharthe Arakil herri polita da, eta baso eta mendi ikusgarriak ditu, Beriain eta Aralar tarteko. Herriko txoko politena zein den galdetuta, Zamartzeko Andre Maria Monasterioa aukeratu du Ordoñok. "Niretako, oso leku lasaia da, berezia. Historia asko du. Erromatarrak egon ziren, XI. mendean uste dut ospitalea izan zela... leku oso bitxia da. Justu atzean Aiztondo dago, eskalatzailen malkorra, eta atzerago Aralarlarko San Miguel, eta beste aldeira begiratzen baduzu, Beriain. Oso leku lasaia da, eta espiritual. Ni ez naiz fededuna, baina toki espirituala da, berezia" azaldu

du Ordoñok. Elizaren ondoan dagoen Zamartzeko Andre Mariaren Gogarte Etxera, hain zuzen ere, meditatzerako eta erretiroa egitera etortzen da jendea.

Erromatarretatik

Zamartzen dagoen informazio panelean jasotzen denez, Zamartzen gizakien okupazioa jarraia izan da azken 2.000 urteetan, eta hori gertatzen den Nafarroako toki bakanetakoa omen da. Gaur egun, monasterioaren eliza besterik ez dago -X. Mendearen bukaeraz geroztiko Iruñeko katedralarena zen-, eta elizak dituen erdi-puntuko portada eta kapitlak ikusgarriak dira. Elizaren ondoan ikusgai dauden arkeologia lanek eta eliza barruan egindakoek agerian utzi dutenez, aspalditik bizia zegoen Zamartzen: erromatar garaiko Aracaeli mansio erromatarraren aztarnen gainean jaso zen Zamartzeko Andre Mariaren Monasterioa, I. mendeko 30eko urteetan. Hortik heldu omen da Arakil izena. Kokagune hau Astorga eta Bordele lotzen zituen galtzada erromatarreko bidaiarien beharrak asetzeko sortu omen zen, eta gerora Donejakuera joateko erabili zen.

Ederra da Zamartze, baina, Ordoñoren iritziak, Zamartzeren berrikuntza egin zenean jarri zioten teilatua "akatsa" izan zen. "Halako teilatua jartzea, zemen-

tu eta porlanezkoa. Niretako, akatsa izan zen. Baina horrela egin zen eta hori da dagoena". Egindako indusketa arkitektonikoetan agertu ziren erromatarren aztarnengatik ere "oso leku berezia da". Bertara hurbiltzeko toki aproposa da, "Aralarko santutegiarekin lotura handia duena, Zamartzetik atera bezain pronto, Aralarlarko portua abiatzen baita".

Bertara hurbiltzera gonbidatu du Ordoñok, "eta baita gure produktuak ezagutzera ere. Hemen gazta egiten da, barazkiak ekoizten dira... denetatik". Uharthe Arakilgo Artzai Eguna ere atejoka dute. "Nekazarien, artzainen eta abeltzainen lanaren erakuslea da. Egun hori oso polita da. Azkeneko bi urtetan ez da egin, eta gogotsu gaude. Postua jartzeko baimena eskatua dut" azaldu du. Asteartero Lakuntzako azokan postua jartzen du, eta arrautzak eta garaiko barazkiak eskaintzen ditu, barietate bereziak ere. "Zerba gorri batzuk ditut, oso onak direnak, orri mami gorridunak. Britainia Handitik ekarritako hazia landatuz sortutakoak dira. Ezagunei bidaiatzen dutenean haziak ekartzeko eskatzen diet" dio irribarrez. Azokaren garrantzia nabarmen-tzen du. "Azokak behar ditugu, eta ez soilik produktuak saltzeko, herriak girotzeko ere bai".

Inguruko paisaia zoragarriak dira beste harribitxiak bat. "Etorri nintzenean, hasieran Beriainera begira jartzen nintzen eta han geratzen nintzen, baina denborarekin ohitzen zara. Hala ere, paisaia zoragarriak ditugu" nabarmen-tzen du.

"Historia asko du. Erromatarrak egon ziren, ospitalea izan zen, monasterioa..."



UHARTE ARAKIL
54. URTEURBENA

2022-08-28

ARTZAI EGUNA 2022

NAFARROAKO ARDI LATXEN XXXVII. ERAKUSKETA
ETA ESNE-EKOIZPENAREN LEHIAKETA

LATXA ARRAZAKO AZIENDAREN
ESTATUKO XVII. LEHIAKETA

NAFARROAKO ARDI LATXEN ESNE GORDINAREKIN
EGINDAKO XLI. GAZTA-LEHIAKETA

NAFARROAKO ARTZAIN TXAKURREN
LIV. LEHIAKETA

GEINBERAN ospatuko da arratsaldeko bostetan

Nafarroako Gobernua ikur laguntzen du



MIKEL
AIZPUN
ANDUEZA

"Arruazuarrendako, Ubeldetxabalek xarma berezia du"

Ubeldea gurutzatzeko harriek, bainua hartzeko putzuek eta irripetek Ubeldetxabal txoko oso berezia bilakatzen dute

Maidet Betelu Ganboa

Arruazu eta ubeldea. Bata besterik gabe ezin da ulertu. Arruazuarrak ubeldeari begira bizi dira, eta Mikel Aizpun Anduezak ere hara jo du herriko txokoa aukeratzean. Ubeldetxabalera, zehazki. "Toki bitxia da, berezia, herri askotan ez dagoena. Ondoan irripetak ditu. Irripetetan asko ibili izan gara, eta ubeldean udan bainatzen edo arrantzan, ordu asko pasa izan ditugu" dio Andra Mari ikastolako irakaslea den gazte arruazuarrak.

Irripetak

Irripetak ubeldearen ondoko mendian dauden arrakalak edo tartekak dira, "harea gris antzekoa dutena. Hor fosilak bilatzen aritzen ginen askotan, Ubeldetxabaleko irripetetan eta baita Arnatz bidetako irripetetan ere, fosilak zeudelako. Goiko irripetetan eseri, eta ipurdiz beheraino jaisten ginen, txirrista baillitza. Eta gero bainua hartzera!" oroitzen du Mikel Aizpunek.

Ubeldea alde batetik bestera gurutzatzeko garai batean bertako harriak zeuden Ubeldetxabalen. Batzuk handiagoak, txikiagoak besteak, borobila bata, laukia bestea... baina 80. hamarkadaren hasieran porlanezko harriak jarri zituzten, denak berdinak. "Nik porlanezkoak ezagutu izan ditut beti. Urteen poderioz, batzuk borobiltzen ari dira, eta batzuk konpondu izan dituzte, makurtuta zeudelako. Uholde handiak egon izan dira, indar handikoak, eta uholde horiek zuhaitzak ekarri izan dituzte, harrien artean geratu izan direnak. Indar horrekin, harriak gutxinaka mugitzen joan dira

eta konpondu egin ditugu" azaldu du Aizpunek.

Saastiarako pasabidea

Harrietatik ubeldea zeharkatu, eta bidean ezkerrean eginez, Saastiako soroetara heltzen da. Bertara iristeko modu ia bakarra da ubeldea zeharkatzea, harrietatik salto eginez, edo traktoreak ibaian sartuta, beste aldera pasaz. Porlanezko bidea dago, ibaiak behera egiten duenean ikus daitekeena. Neguan ia ezinezkoa izaten da Saastiara joatea, ubeldeak ur emari asko duelako. Uda inguruan edo emari gutxi dagoenean, ez dago besterik. "Uharte Arakilgo zubia-aren beste aldetik ere Saastiara hel daiteke, baina jabego pribatuak diren soroetatik pasa beharra dago, eta ez da ohikoa" aipatu du.

Arruazuko igerilekua

Ubeldetxabal ezinbesteko tokia da arruazuarrendako. "Arruazun ohikoa izan da beti ubeldera bainatzera etortzea. Igerilekurik ez baitugu. Txikiak ginela, gurasoekin etortzen ginen, eta adin pixka batekin, bakarrik. Bainua hartzeaz gain arrantzara etortzen ginen" dio. Igeri egiten ikasita, Koxkora joatea zen hurrengo pausoa, hondo gehiago duelako, "baina pixka bat aparte geratzen zen eta ez ginen askotan joaten.

"Arruazuk txoko polit asko ditu, baina, niretako, Ubeldetxabal berezia da ordu asko pasa izan ditugulako"

Arrantzan ari ginela bai, poliki-poliki kobazuloz kobazulo eskuak sartzen Koxkora iristen ginen. Gure bainu gehienak Ubeldetxabalen izaten ziren. Azkeneko harriak txirrista txiki bat egiten du, eta han ibiltzen ginen. Erdi aldera ere putzu ederra dago" oroitzen du.

Mikel Aizpunek bi seme dauka. "Oraindik txikiak dira ubeldean bainua hartzeko; aurrerago hasiko dira. Arrapalekin txipak hartzen ibiltzen dira ibaian, hankak uretan sartuta, baina oraindik ez dira bainatzen. Orain gaztetxoak dira bainua hartzera datozenak" kontatu du.

Txipi-txapak

Ubeldetxabaleko beste klasiko bat txipi-txapak dira. Hau da, harriak ibaira jaurti eta ur gainean saltoak eginaraztea. "Txipi-txapak egiten ere zenbat ordu! Gainera, lehen festetan txipi-txapa txapelketa egoten zen; Maria Joaquina Ganboak irabazten zuen gehienetan" gogoratu du.

Ubeldetxabal, beraz, txoko berezia da. "Ez dakit Arruazuko txokorik politena den, Arruazu herri oso polita baita. Txoko polit asko ditu, historikoak, baina niretako, txoko hau berezia da ordu asko pasa izan ditugulako. Osabak Saastia parean soroa eta frutarbolak ditu. Askotan joaten ginen, harrietatik pasaz. Horregatik niretako berezia da, oroitzen horiengatik guztiengatik. Irripetak ahaztu gabe; bertan asko jolastu izan gara" dio.

Ubeldea berdintsu dagoela uste du Aizpunek. "Ingurua da aldatzen joan dena. Txikiak ginela, ubeldea zikina zegoen. Gero bazter guztiak garbitu zituzten,

ubeldea asko ateratzen zelako. Garbitu ondoren, gutxiago iristen zen herrira. Orain inguruan

sasi gehiago ditu. Aldatu da, baina ez makurrago edo hobeki, baizik eta ezberdin" dio.

GAZTANDEGIA
630 631 882
info@albigaztak.com

BISITA GIDATUAK
681 083 409
bisitak@albigaztak.com

www.albigaztak.com

ARRUAZU

ETXAREN

FESTAK

UZTAILAK 29 Ostirala

19:00 Txupinazoa.
19:15 2021ean eta 2022an jaiotako haurrei bestetako zapia ematea.
19:30 Herri jokoak.
19:30-21:30 Luzianorekin dantzaldia.
22:00 Herri afaria.
00:00-05:00 Luzianorekin dantzaldia.

UZTAILAK 30 Larunbata

11:30 Hamaiketakoa.
12:00 Haur jolasak Tramankulurekin.
18:00 Txokolatada.
18:30 *Txoripanas* musika eta dantza ikuskizuna.
19:00 Lorena Arangoaren eta Patxi Larrearen *Siroko* antzerkia.
20:00 Hiruko saskiratzeen txapelketa.
20:00-21:30 Fidelekin

dantzaldia.
21:30 Bingoa.
22:00 Zezensuzkoa.
22:30 Herri afaria.
00:00-05:00 Fidelekin dantzaldia.

UZTAILAK 31 Igandea

11:45 Hamaiketakoa trikitixak girotuta.
12:30 Herritarren arteko herri kirolak.
16:30-19:00 Puzgarriak.

18:00 Pilota jaialdia.
20:00 Puro Relajo taldearekin mexikarrak.
21:30 Bingo eta zozketak.

ABUZTUAK 1 Astelehena

11:30 Hamaiketakoa.
12:30 Ping pong txapelketa.
14:30 Herri bazkaria.
16:30 Mus eta briska txapelketa. Haurrendako jolasak.
00:00 Gaixoa ni.

SATRUSTEGI

FESTAK

ABUZTUAK 19 Ostirala

20:00 Txupinazoa.
20:30 DJ Félixekin dantzaldia.
22:00 Herri afaria.
00:30 DJ Félixekin dantzaldia.

ABUZTUAK 20 Larunbata

11:00 Puzgarriak eta photocall.
12:00 Batukada.
13:00 Futbolin txapelketa.
17:00 Jolasak familian, puzgarriaketa eskorga mozzorribak.
Oharra: Tuneatu karretila eta parte hartu.
19:00 Pilota partiduak.
20:30 DJ Félixekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa eta traka.
00:30 DJ Félixekin dantzaldia.

ABUZTUAK 21 Igandea

12:00 Meza nagusia.
13:00 Otamena eta mariatxien emanaldia.
17:30 Lorena Arangoaren Tera Pia antzezlaren emanaldia.
19:00 Laranja lasterketa.

IHABAR

ABUZTUAK 26 Ostirala

22:00 Ihabarko antzerki tailerra, plazan.
La vida de Brian antzezlaren emanaldia.

ABUZTUAK 27 Larunbata

22:00 Ihabarko antzerki tailerra, plazan.
La vida de Brian antzezlaren emanaldia.

ERROTZ

FESTAK

ABUZTUAK 19 Ostirala

ERROZKO FESTAK

ABUZTUAK 20 Ostirala

ERROZKO FESTAK



Sakanako informazioa

euskaraz edonon

Bazkidetu **urtean 12€-ren truke!**



guaixe
fundazioa

Informazio gehiago:
948 564 275 | 618 882 675
admin@guaixe.eus

IRURTZUN

ABUZTUAK 3 Asteazkena

20:00 Udako zinema euskaraz, Foru plazan.

Mustang filmaren emanaldia.

ABUZTUAK 4 Osteguna

20:00 Kontzertua, Piku plazan.

Superacid taldearen emanaldia.

Funky musika estiloa. Pikuxarrek antolatuta.

ABUZTUAK 12 Ostirala

20:00 Musika parkean, Gernika parkean.

Zugardi Rag Band taldearen kontzertua.

ABUZTUAK 21 Igandea

20:00 Kontzertua, Piku plazan.

Enara&Co bakarleri irurtzundarraren emanaldia. Bertsioak. Pikuxarrek antolatuta.

ABUZTUAK 25 Osteguna

20:00 Klown ikuskizuna, Piku plazan.

Nomada Zirko konpainiaren emanaldia. Adin guztiendako.

Pikuxarrek antolatuta.

ABUZTUAK 27 Larunbata

08:30 II. La Peluso BTT Xtream, plazatik.

Bi ibilbide: Luzea 57,76 km eta motza 27,92 km. Irurtzun Taldea kirol elkarteak antolatuta.

20:00 Kontzertua, Piku plazan.

Garazi&Sala bertsioak egiten dituen bakarleriaren emanaldia. Pikuxarrek antolatuta.

IRAÑETA

FESTAK

ABUZTUAK 25 osteguna

18:00 Frontenis txapelketa.

20:00 Urdai jatea eta Markel DJrekin dantzaldia, plazan.

ABUZTUAK 26 ostirala

12:00 Txupinazoa.

14:30 Paella txapelketa.

17:00 Karaoke.

20:00-22:00 Gabenara taldearekin dantzaldia.

Ardoa, txokoan.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-04:00 Gabenara taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 27 larunbata

10:00 Gosaria: babak txerri buztanarekin. Mus txapelketa.

17:00 Erronda Kopera auzoka, Inpresentables txarangarekin.

20:00-22:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.

Ardoa, txokoan.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-04:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 28 Igandea

12:00-14:00 Puzgarriak, frontoian.

15:00 Herri bazkaria.

16:00-18:00 Puzgarriak, frontoian.

18:30 Irurtzango Orritz dantza taldearen emanaldia.

20:00-23:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

Ardoa, txokoan.

22:00 Zezensuzkoa.

ABUZTUAK 29 Astelehena

12:30 Meza nagusia, patrioiaren omenean.

Luntxa, plazan.

17:00 Partxis txapelketa.

19:30-22:00

Hauspolariek taldearekin dantzaldia.

Ardoa, txokoan.

UHARTE ARAKIL

UZTAILAK 29 Ostirala

19:30 Hitzaldia, Zamartzen.

Zamartze Andre Maria: Bere erromatar jatorria eta Donejakue bidean gisa erabiltzea.

Hizlaria: Fran Valle de Tarazaga, arkeologian aditua.

ABUZTUAK 7 Igandea

SAN DONATORA ERROMERIA

11:00 Meza, ermitan.

Ondoren, udalak eskainitako

auzatea: gazta, txorizoa, urdaia, ardoa eta ura.

ABUZTUAK 28 Igandea

54. ARTZAI EGUNA

Aralar Mendi elkarteak antolatuta

09:30etik aurrera, plazan.

Nafarroako ardi latxen

XXXVII. erakusketa eta

esne ekoizpenaren

lehiaketa.

Latxa arrazako azindaren

estatuko XVII. lehiaketa.

Nafarroako ardi latxen

esne gordinarekin

egindako XLI. gazta

lehiaketa.

Nafarroako artzain txakurren

LIV. Lehiaketa, 17:00etan,

Geinberan.

*Agendan agertzen den informazioa orientagarria da eta aldaketak egon daitezke.

XXIX

ABUZTUAREN 12-15 DE AGOSTO
ARAIA- ASPARRENA

▶ www.jaraialdia.com

UMOREZKO ANTZERKI FESTIVAL DE TEATRO DE HUMOR

Laguntzen ditu:

Antolatzen du:

Diriguntza ematen du:

Kudeaketa eta produktorea:

Elbereten du:


10 UDA SAKANAN LAKUNTZA

Maidar Betelu Ganboa

Lakuntzan kuadrilla gehienak plazan, parkean, Pikotan, Beheko Basoko lehendabiziko langako basoan... eta halakoetan hasten dira biltzen. Oihan Soto Satrustegiren kuadrillakoak, Bihurriak, aldiz, ez. Larraina kalean, Juanesena etxeko estalpean edo pelenan hasi ziren biltzen, "txiki-txikitatik. Ni herriko punta batean bizi naiz, besteak bestean, eta orduan esan genuen: erdiko punturen batean bilduko gara. Andoni Egurza, gure kua-

drillakoa, justu Juanesena atzealdean bizi da, eta orduan Larraina kaleko plazatxoan eta bere etxeko pelenan jarri genuen hitzordua. Uda osoak hor, eta baita udazkenak eta neguak ere. Beroa egiten zuenean estalpean sartu, eta fresko egoten ginen, eta euria egiten zuenean hor gordetzen ginen. Gure txokoa bihurtu zen" dio Oihan Sotok.

Lakuntzan hiru pelena daude: Angelena etxekoa, Motxale etxekoa eta Juanesenakoa. Toki bereziak direla ezin daiteke uka,



Aliprox

948 576 246
Uriz, 12
LAKUNTZA

SORGINAK TABERNA

Bazkariak eta afariak ematen ditugu

747 402 007 | 848 453 316
LAKUNTZA

CARNICERÍA I. ARREGUI

HARATEGI ETA URDAITEGIA

Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Etxeko obradorea: tripota · tripotxa · mihia · kalluak · saltxitxak · frituak

948 576 067 · 646 20 85 23
Herriko plaza z/g · LAKUNTZA

GARRAIO AGENTZIA

TRANS ARREGUI

Juan Ramón Arregui
608 286 404

TRANSPORTES JUAN RAMÓN ARREGUI S.L.
Sarrate industrialdea, 1 | Larrañeta 7 | 31830 Lakuntza
Tel./Fax: 948 57 60 44/ Tel.: 948 57 63 16
info@transarregui.com



OIHAN SOTO
ETA
KUADRILLA

"Juanesenako pelena gure txokoa bihurtu zen"

Oihan Soto Satrustegik eta Bihurriak bere kuadrillakoek Juanesena etxeko pelenan hamaika ordu eman dituzte

deigarriak. "Portiko edo tunel bat bezalakoa da pelena, bi etxe batzen dituen pasabidea, teilatuduna. Juanesenakoak bankua du, eta hor esertzen ginen" gaineratu du.

Kantu eta dantza

Oihan Sotok, irakasle ikasketak egin eta gero, gorputz hezkuntza aipamena bukatu du aurten. Beraz, gorputz heziketako irakaslea da, baina, aldi berean, kantatzea da bere zaletasuna, eta Youtube-ra eta sare sozialetara zenbait kanta igo ditu, Spotifyn-ere entzungai daudenak Oihan S. bilatuz gero. *Zaindu zure burua, ZU* eta *Hoy recordé* dira entzungai daudenak, zenbait kanturen coverekin batera. "Betidanik gustuko izan dut abestea eta dantzatzea, baina etxean egiten nuen, bakarrik nengoenean. Horretaz gain, idaztea oso gustuko dut. Libreta bat dut, letrekin; abesti pila ditut jasoak, eta behin grabatzea erabaki nuen. Besterik gabe. Gustatzen zitzaizkidanez, bideoak eta abestiak igotzea erabaki nuen, bakarrik nire lagunei esanez. Beraiek kanta horiek publiko egitera animatu ninduten. Jendeak esan dit oso ausarta naizela, asko ez lirakeela animatuko, eta gustatu zaiela. Eta ni poztu naiz" kontatu du.

Juanesenako txoko horretan ere makina bat kantu eta dantza egin ditu kuadrillarekin. "Festetan play-back txapelketa egiten zen eta hor aritzen ginen entseatzeko, topera (kar, kar...). Beti abesten eta dantzatzen ibiltzen gara" dio.

Juanesena etxeko Lorea Egurza, eta pelenaren bestaldean bizi den Peio Egurza bere anaia ohituta zeuden gazteak euren etxe azpian ikusten. "Egunero egoten ginenez esaten ziguten: Zer zabilzate, arratsalde pasa? Zer moduz kuadrilla? Eta halakoak. "Zuen etxea dela dirudi" beste

batean. Egunero zerbait, baina arazorik gabe, oso ongi". Oihanek ez du bi etxeen arteko pasabide hori barrutik ezagutzen. "Ni ez naiz egon, baina nire kuadrillako batzuk bai, eta uste dut korridore bat bezalakoa dela, etxe batetik bestera pasatzen dena, bi alboetan atea dituela, bi etxeetara sartzeko".

Oraindik bilgune

Oraindik ere, tarteka, Juanesenako pelena biltzen da kuadrilla. "Poteatzeko plazan jartzen dugu hitzordua, baina paseatzera joateko edo bestelakoetarako pelena biltzen jarraitzen dugu". Bere kuadrillarendako txoko berezia da, baina, aldi berean, Oihan Sotok oso argi du berarendako Lakuntzako txokorik politena dela. "Juanesenako estalpea niretako txokorik politena da, zalantzarik gabe" berresten du, eta Lakuntzara hurbiltzen direnak bertatik pasatzera gonbidatzen ditu.

"Festetako play-back txapelketarako estalpean aritzen ginen entseatzeko, topera"

LAKUNTZA

UZTAILAK 30 Larunbata

08:00 Lakuntzako Pertza eguna prestatzeko auzolana, Olaskitturrin.

UZTAILAK 31 Igandea

Goizean Hike & fly txapelketa. Euskal Herriko Oinez eta Hegan parapente txapelketako Nafarroako Txapelketa. Eguraldiaren eta haizearen arabera izanen da ordutegia.

ABUZTUAK 21, igandea

LAKUNTZAKO PERTZA

06:00 Aralarra igoera astoarekin. Bide erdian, gosaria.
11:00 Meza, Aralarako santutegian. Ondoren, auzatea: tripotak, ogia eta ardoa, aterpean.
Biltokiko kideen Lakuntzako Pertza dantza, aterpearen aurreko plazan.
14:30 Bazkariak.
16:30-18:30 Musika.
Ondoren, jaitsiera.

FESTAK

ABUZTUAK 26 Ostirala

BEZPERA
18:00 Guardetxera igoera herrikoia.
Zabalartek antolatuta.

ABUZTUAK 27 Larunbata

11:30 Dianak Lakuntzako txistulariekin.
12:00 Ezkil errepiketa.
12:30 Txupinazoa.
12:30 Erraldoi eta buruhandien konpartaren irteera, Haizaldi gaiteroekin.
13:00 2021ean jaiotako haurrei zapi banaketa.
13:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.
13:25 Guardetxeko igoerako eta kartel lehiaketako sari banaketa, herriko plazan.
13:45 *Denak itxa!* Topa, Haizea elkartean.
15:00 *Denak itxa!* Bazkari herrikoia, plazan.
16:30 Haurrendako apar festa, Larraina plazan.

18:30 Elai Alai dantza taldeko gazteen emanaldia, plazan.
19:30 Larrain dantza.
20:00 Auzatea, Sant Sadurni d'Anoiako lagunaren eskutik.
20:00-22:00 Tio Teronen Semeak taldearen dantza ikuskizuna, plazan.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00 Diables Se m'n Refum.
00:30-04:00 Ezitian taldearekin dantzaldia, plazan.

ABUZTUAK 28 Igandea

12:00 Meza nagusia.
Parrokiak antolatuta.
12:30 Aizkolariak, plazan.
13:00 Auzatea Lakuntzako Pertza elkartearen eskutik.
13:30 *Argako erregina* Estefania de Paz artistaren kale ikuskizuna, plazan.
20:00 Gozategi taldearen dantzaldia, plazan.
20:15 Auzatea Ehiztarien eskutik.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-02:30 Oihan Vegaren eskutik dantzaldia, plazan.

ABUZTUAK 29 Astelehena

HAURREN EGUNA
10:30 Dianak Haizaldi taldearen eskutik.
11:30 Dianak Lakuntzako txistulariekin.
11:00-14:00 Puzgarriak, plazan.
12:30 Erraldoi eta buruhandi konpartaren irteera, Haizaldi gaiteroekin.
13:00 Auzatea Gure Nahia elkartearen eskutik.
17:00-19:00 Puzgarriak, plazan.
20:00 Auztea Lakuntzako Udalaren eskutik.
20:00 *Denak itxa!* herri argazkia.
20:00 Buruhandien irteera.
20:00-22:00 Xaiborrekin dantzaldia, plazan.
22:00 Zezensuzkoa.
00:35-02:30 Xaiborrekin dantzaldia, plazan.

ABUZTUAK 30 asteartea

AITTUN-AMIÑEN EGUNA
11:00 Aittun-amiñen ZAPI

BANAKETA itxez itxe.
11:30 Kalderete lehiaketaren hasiera, plazan.
12:00 Meza nagusia.
Parrokiak antolatuta.
12:30 Bizikleta zinten jolasa, Aldabide plazan.
13:00 Auzatea, Guraso Elkartearen eskutik.
13:00 Destino Sonora Mariatxiak, plazan.
13:30 Aittun-amiñen luncha.
14:00 Kaldereteko plater bilketa eta sari banaketa.
17:00 Kadeteen mailako txirringarritza proba.
20:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.
20:00 Buruhandien irteera.
20:00-22:00 Joselu Anaiak taldearen dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-04:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 31 Asteazkena

EUSKARAREN EGUNA
Goizez eta arratsaldez, Euskal Herriaren photocall-a, plazan.
10:30 Dianak Haizaldi gaiteroekin.
12:00 *Lakuntzako auskias akordatzen yeiz?* solasaldia, plazan.
13:00 Lakuntza Kantuz Kuxkuxtu musikariekin batera, herrian barna.
Auzatea Haizea elkartearen eskutik.
13:00 Auzatea Haizea Elkartearen eskutik.
14:30 Euskararen aldeko kantu bazkaria, Kuxkuxtu taldearekin.
Ondoren, Hitz pasa jolasak, plazan.
19:00 *Amico on the beach* antzerkia.
20:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.
20:00 Buruhandien irteera.
20:00-22:00 DJ Jo Ta Txorekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-02:30 DJ Jo Ta Txorekin dantzaldia.

UDA SAKANAN AGENDA 11

ABUZTUAK 1 Osteguna

GAZTE EGUNA
12:30 Oihuarima taldearen dantza emanaldia.
13:00 Auzatea Biltokiren eskutik.
15:00 Gazte bazkaria, bingoa eta piropo lehiaketa.
18:30 Kalejira girotua, herrian zehar.
20:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.
20:00 Buruhandien irteera.
22:00 Zezensuzkoa.
23:30 Kontzertuak: Nafarroa eta Ostikoka taldeak.

ARBIZU

ABUZTUAK 21 Igandea

SANDINDEI EGUNA
11:30 Sandindei bordara erromeria.
Bertan, aatea udalaren eskutik eta musikariak.
14:30 Bazkariak.
Iluntzean, herrira buelta trikitien douinpean.

ABUZTUAK 28 Igandea

09:30 VI. Tritoiena mendi lasterketa, Ekokanpina.
Arbizuko Ekokanpinean irteera eta helmuga daude, eta Beriain du ardatz. Arbizuko Ekokanpinak eta Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak antolatuta.

DORRAO

FESTAK

ABUZTUAK 12 Ostirala

12:00-14:30 Haurrentzako jokoak: puzgarriak eta zezen mekanikoa.
16:00-18:30 Haurrentzako jokoak: puzgarriak eta zezen

mekanikoa.
20:00 Auzatea. Puro Relajo taldearen kontzertua.
00:00-04:00 DJ Julenekin dantzaldia

ABUZTUAK 13 Larunbata

13:00 Gaiteroak.
15:00 Herri bazkaria: Sagardotegi mugikorra.
18:00 Errola.
20:00 Auzatea.
20:00-22:00/0:00-04:00 Gabenara taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 14 igandea

11:00 Pilota partiduak Arbizuko pilota eskolaren eskutik.
13:00 Luntxa
17:00 Poniak eta behiokak.
20:00 Auzatea
20:00-22:00/0:00-04:00 DJ Julenekin dantzaldia.

ABUZTUAK 15 Astelehena

17:00 Aizkolariak
19:00 Txistorrada eta sardinak.
20:00 Auzatea
20:00-22:00/0:00-04:00 Dj Julenekin dantzaldia.

LIZARRAGA

ABUZTUAK 21 Igandea

ARLEZE EGUNA
09:00 San Adrian ermitara igoera. Auzatea, Lizarragako Kontzejuaren eskutik. Arlezera erromeria.
11:30 Lezean sartu eta irten. Herrira itzuli.
14:30 Herri bazkaria.
Ondoren, txarangarekin kalejira eta auzo bakoitzak erronda eskainiko du.
22:00 Marmitako afaria, elakartean.
23:00-01:00 Disko jartzailearekin dantzaldia.





MAIA, EGOITZ, MARTIN ETA IKER

"Arrainak daudelako eta jende gutxi etortzen delako gustatzen zaigu"

Leziza errekan arratsalde pasa egoten dira Arbizuko zenbait haurrek, ur emari gutxi duenez, bertan bainatzeko eta paseatzeko aukera ematen du

Erkuden Ruiz Barroso

Fresko eta lasai egoteko toki bat, bainatu, arrantzatu eta jolasteko. Besteak beste, Arbizuko Maia Lakuntza García, Egoitz Yeregui Carretero, Martin Lakuntza García eta Iker Loidi Lakuntzak arratsaldeak Leziza errekan inguruan pasatzen dituzte. Gurasoek, aitek konkretuki, erakutsi zieten tokia.

Leziza erreka hegoaldeko iparraldera zeharkatzen du Arbizu. Haren urak Beriaindik datoz, eta Arakil ibaian amaitzen

dute. Bide horretan, herritik pasatzen denean, herritarren gozamenerako tokia da, eta haren parean dagoen bidetik jendea paseatzera joaten da. Lekua lasaia ez ezik, segurua ere bada, izan ere, ez da kotxerik pasatzen, eta jendeak Akerruntza auzora joateko bidezidorra bezala erabiltzen du.

Herritik gertu dagoenez, Maia, Egoitz, Martin eta Ikerren kuadrillak bertara jolastera joateko baliatzen du. Ur emari gutxikoa da, eta arrisku handirik gabe bainatu daiteke bertan. Gerri-

raino, gutxi gorabehera, estaltzen ditu urak; beraz, kontu handiarekin bainatzen direla esan dute haurrek.

Zubitik

Esan bezala, erreka iristea oso erraza da: "Arrandegiaren ondoan dagoen zubitik etortzen gara". Oinez edota bizikletan etortzen dira toki honetara, eta gehiengotan errekan gora egiten dute, Olatzea hotelera iritsi arte. Garai batean errekan urak erabiltzen zituen errota zen Olatzea. Uretatik ez ezik, ondoan dagoen

bidetik ere paseoa joaten da kuadrilla, baita txirrindularekin ibiltzen dira ere inguru horretan. Zenbait herritarrek ere hemendik egin izan ohi dute paseoa.

"Leziza ur emari gutxikoa da, eta haurrek errekan gora egiten dute, Olatzea hotelera iritsi arte!"

Leziza errekan ekosistema baliatuz "arrantzan" ibiltzen dira haurrak. Ez da benetako arrantza, debekatuta baitago. Arrainak eta karramarroak begiratzen egoten dira, eta baten bat hartzen badute ere, gero askatzen dute. Zergatik etortzen diren txoko honetara galdetuta: "Arrainak daudelako eta ez delako jende asko etortzen". Lasai ibiltzen dira haurrak Leziza errekan jolasten. Arrantza ez ezik, presak ere egin izan dituzte; eta uretan daudenez, fresko ibiltzen dira.

ARALAR
-FERRETERIA - BURGINDEGIA-

SARRAILAGINTZA
24 H

Uriz, 18 - behea
LAKUNTZA
T. 948 46 48 06
administracion@aralarferreteria.com

**KALE TXIKI
TABERNA**

Eguneko menua 14€
Asteburuko menua 35€

Lakuntza 948 57 60 09

**MABINELETXE
HARATEGIA**

948 46 19 80
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6
Etxarri Aranatz

**BIKAIN
GARAJEA**


Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

FLORES S.L.

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.

Denbora- pasak



$$\text{🍋} + \text{🍋} = 1$$

$$\text{🍋} + \text{🍋} = 1$$

Zenbat limoi
oso daude?



Baratzeko tresnak

Sakanako hizkeran



llekrteari

arpa

tarzurei

ages kinama


rirfoee

teigitie

aksreeue

iuaegauztarl

Dermioen letra zopa



I	Z	I	E	K	L	E	C	E	Y	L	Y	T	S	Z	T	O	K	E	U
K	S	M	R	W	A	I	T	U	R	R	I	X	A	R	X	Z	C	C	U
U	N	B	A	R	B	A	Z	T	A	R	R	O	J	T	O	Z	B	U	Q
V	A	E	L	N	E	T	L	G	X	L	X	R	Z	X	R	H	X	G	X
S	I	B	Z	F	G	B	Y	F	T	F	A	J	K	A	R	X	B	M	X
Z	R	A	V	E	F	O	A	W	G	Y	O	F	T	B	O	I	H	U	X
T	O	I	B	K	L	D	L	T	C	I	K	A	B	O	A	I	N	S	C
L	M	G	I	T	T	A	S	U	A	U	Z	U	M	L	D	B	O	K	R
E	B	E	K	U	U	K	S	V	Z	K	I	C	Y	A	E	N	V	I	J
I	Q	I	M	W	G	L	A	A	R	E	R	V	M	Z	N	Y	Q	L	M
F	I	O	C	Q	G	Z	O	V	B	L	R	Q	I	A	A	U	S	D	X
F	Z	R	X	O	I	T	Q	O	R	R	A	A	G	R	T	L	T	I	N
J	C	R	B	N	R	N	R	G	L	O	G	R	E	R	Z	E	M	O	H
R	F	E	P	M	X	T	P	B	L	M	V	P	D	E	R	G	F	S	C
E	S	P	I	L	L	E	T	A	B	A	R	U	N	T	U	I	E	T	Q
W	B	E	I	S	A	B	E	U	Y	Q	E	T	I	A	Y	B	W	U	W
A	V	V	X	K	Q	V	K	W	T	A	X	Z	D	G	E	Y	N	R	V
E	L	A	W	R	U	M	P	Q	H	R	U	U	N	J	K	G	Q	D	O
M	J	H	W	W	I	U	R	U	B	A	K	R	A	G	U	U	O	I	U
U	I	V	N	M	I	Y	K	Z	Q	K	Q	J	S	H	N	G	B	D	U

- Amorleku
- Arputzu
- Ataberri
- Basaleze
- Baztarro
- Beisabe
- Elkeiz
- Erroiegi
- Espilleta
- Garrizkoa
- Igelu
- Iturrixar
- Mangoluz
- Muskildi
- Orian
- Osturdi
- Txabolazarreta
- Sandindegia
- Txorroadena
- Ugarkaburu

Sudokuak



Nerea Balda San Juan

Gogaikarriena denean ere
bizitza denik eta gauzarik ederrena da
J.Sarrionandia

Denik eta ederrena balitz

Urrutiko intxaurrak hamalau lirateke gerturatuta ere
Lausenguak botako lizkioke zozoak ❶ _____

Ogi gogorrari hozka egingo genioke ordezeko haginekin ere
Sardina bat lan eginda, dozena ❷ _____ genuke

Aldaparik ez legoke, gustuko ez ditugun ❸ _____
Auzoenak bezain luze lituzke gure behiak erroak

Burdina egingo genuke balizko olan
Sosik gabe zelaituko genituzke ❹ _____

Usoak ez lirateke otso bihurtuko
Gazteak jakingo luke, ❺ _____ ahal.

Nirea eta zurea, biak lirateke gure
Ura iritsi aurretik eraikia genuke presa

Asto joan eta zaldi etorriko ginateke
Adiskide onekin orduak ❻ _____ lirateke


Baina balu eta balitz elkarren ondoan dabiltz
eta bizitza denik eta ederrena ez, menturaz,
baina, baiki, bada

denik eta dugun
❼ _____.



- ❶ azeriari, beleari, hari
- ❷ jango, botako, eramango
- ❸ lekuetan, parketan, tokietan
- ❹ malkoak, malkarrak, okerrak
- ❺ aitonak, zaharrak, makarrak
- ❻ luze, motz, gutxi
- ❼ hutsunea, bakarra, azkena

Gurutze- grama



Denborapasa hauek
Esekik babesten ditu.
Gozatu eta ikasi!


Horizontalak

3. Elektrizitatearen erroalea den haria.
5. DCko zirkuitu elektriko bateko polo positiboko kablearen kolorea.
11. Baliabide baten kontsumoa ekoizpen iturri berean.
13. Energia hori ia agortezinak diren baliabideekin sortzen da, hala nola argiarekin, haizearekin edo urarekin.
15. Lan bat egiteko erabiltzen diren piezen multzoa.
16. Hiru espezializazio adar dituen gizarte ekonomikoak: Ingeniaritza, instalazioak eta homidurak.
17. Zientzietako unibertsitate gradua.
19. Elektroien mugimenduan oinarritutako energia forma.
22. Makina automatiko programagarria.
23. Korante elektrikoaren fluxuarekiko oposizioa.
28. Sozietate Anonimo Laborala.
29. Bi punturen arteko potentzial elektrikoaren diferentzia.



Bertikalak

1. Zirkuitu ... bi kablaren konexio okerra.
2. Elektrizitatea transmititzen duen laranja koloreko metala.
4. Lurak izar honen inguruan biratzen du.
6. Egungo beharrak bermatzen ditu, etorkizuneko belaunaldien beharrak ariskuan jarri gabe.
8. Gauza baten kategorioaren eta kalitatearen ezadugarriak legerian egokitzen direla ofizialki erregistratzea edo egiaztatzea, ekintza.
9. Korantea ibilbide itxi batean zehar garaitzen duen osagai multzoa.
10. Eguzki ... teiatuaren gainean instalatzen den elementua, eguzkiaren argia hartzeko eta energia hori elektrizitate bihurtzeko.
12. Ekonomia ... pertsonak eta giza helburua kapitalaren gaitasun jarzpen dituen ekonomia mota.
14. Kontsumo txikiko argia.
18. André-Marie Ampère fiskari frantsesarengandik bere izena jasotzen duen unitatea.
20. Beharrezkoa bonbilla bat pizteko.
21. ... altua.
23. ... Ararat, duela 26 urte Eseki sortu zen herria.

Labirintoa



Non daude Sakanako frontoia?



Lotu esanahi bereko hitzak

- | | |
|-------------------|-----------------|
| 1. Flatera | __ Tximista |
| 2. Nua | __ Biluzik |
| 3. Ostots | __ Ekaina |
| 4. Gaizteinkei | __ Sakatu |
| 5. Inezturarri | __ Garaiz |
| 6. Izer | __ Habi |
| 7. Aspalditti | __ Lotsagabeko |
| 8. Garagarzaroa | __ Maki |
| 9. Xorginaize | __ Inozo |
| 10. Larrugorriyen | __ Nora |
| 11. Iruzki | __ Platera |
| 12. Agozabalkan | __ Trumoi |
| 13. Kafi | __ Ustegabeen |
| 14. Gareis | __ Izar |
| 15. Kalkatu | __ Aspaldidanik |
| 16. Ttuttulu | __ Aharrausika |
| 17. Zider | __ Gaiztakeri |
| 18. Kopetageizto | __ Eguzki |
| 19. Ustekaitzien | __ Zilar |
| 20. Maki | __ Zurrunbilo |

Garaiko barazkiak



Barazki hauetatik zenbat dira abuztuan biltzekoak?



7 desberdintasunak aurkitu



UDA KO ARGAZKI LEHIAKETA


- 1 **ERAIMAHAIAREN SARIA:**
ANTZUOLAKO IBARRE LANDETXEAN 2 LAGUNENTZAKO EGONALDIA
- 2 **KOMUNITATEAREN SARIA:**
ERRIGORA KUTXA BAT
- 3 **PARTE HARTZAILEEN ARTEAN ZOZKETA:**
HALCON BIDAIK-EN 50€KO DESKONTUA



UDA KO ARGAZKI LEHIAKETA

- 1 **ERAIMAHAIAREN SARIA:**
ANTZUOLAKO IBARRE LANDETXEAN 2 LAGUNENTZAKO EGONALDIA
- 2 **KOMUNITATEAREN SARIA:**
ERRIGORA KUTXA BAT
- 3 **PARTE HARTZAILEEN ARTEAN ZOZKETA:**
HALCON BIDAIK-EN 50€KO DESKONTUA

Erantzunak abuztuaren 29an guaixe.eusen



MIREN
ALDAZ
AGIRRE

"Plazan beti bakarren batekin zaude"

Lizarraga barna egiten dituen paseoetan beti plazatik pasatzen da, jendea egonen dela badakielako

Alfredo Alvaro Igoa

Herrira sartu eta ezkerretara San Donato karrika dago, edonor plazara eramaten duena. Nafarroako hiriburuan bezala, Ergoienako hiriburuan, Lizarragan, plaza "egongela da". Hala aurkeztu du Miren Aldaz Agirrek bere herriko gogoko txokoa. "Iruñekoa baino txikiagoa da, baina batean eta bestean, herri-tar guztiok hara joaten gara, egotera. Berdin da zer egiten duzun, han herriko jendearekin, herrira etortzen eta lizerratarra izanik herrira bueltatzen direnekin topatuko zara". Aldazek azpimarratu du plaza "topagunea" dela.

Mendi magalean egotean Lizarragak "toki zelai gutxi ditu, eta plaza aldaparen adibidea da". Aldapetara ere bat ohitu egiten dela gaineratu du Aldazek, "neurria hartzen diozu". Plazan ere

aldaketak izan dira. Lehen porlanezko zorua zuen, baina berri-tu eta plazaren zorua erdian galtzada harriz egindako lauburu-a dago. Iturria ere badago kioskoa jartzen den tokian. "Han iturria eta aska zeuden lehen. Aska kendu eta jendea esertzeko aulkia egin zuten".

Plaza Nausiye etxer inguratu-ta dago. Plazaren goiko partean amonaren sortetxea du Aldazek, Xarminttonekua. Han bizi dira

lehengusuak. Eta plazaren beheko partean amonaren anaia baten etxea dago, Linosena (Erdoxana, batzuek). Beraz, Aldazek txikitatiko du plazarekin harremana: "Lizarragan eman nituen lehen pausoak, besteak beste, plazan izan ziren, garai hartan plazara jende guztia joaten baitzen". Joan den mendeko 80ko eta 90eko hamarkadez ari da.

Txikitan, herrian batera eta bestera ibilitakoa da Aldaz. Tar-

tean, plazako iturrian, askan, kioskoan... "alai egoten ginen". Plazara amonarekin joan izanaz oroitzen da, "koinatarekin, familiarekin elkartzen zen. Plazan bizi zirenez, han egoten ginen. Ahizparen lagunak, nireak... Herriaren bihotzean bat egiten genuen". Jakinarazi duenez, plazan "denetarik" egiten zen. "Orain ez da horrela. Jendea hiltzen ari da, batez ere, adinekoak, gehien ezagutzen dituzunak. Hala ere, han beti bakarren batekin zaude". Aldazek Lizarragan barna paseatzea gustuko du, eta ibilaldi horietan plazatik pasatzen da, "funtsezko puntua baita".

Dantza

San Adrian festetan lizerratarrek zortzikoa dantzatzeko dute plazan. 2006an berreskuratu zuten dantza lizerratarrek eta, orduetik, "dantza nik zabaltzen dut. Dagoen aldapa ez da dantzatzeko traba handia". Azaldu duenez, dantza entseguak apirilean hasten dituzte, eskola hartu zuen eraikinean biltzen dira horretarako. "Maiatza bukaeran, ia garagarri-lean, plazan entseatzeko hasten gara. Dantzatzeko, bueltak egiten asko laguntzen digu lauburuak. Plazan entseatzeko dugunean haren inguruan egiten dugu". Aldazek gaineratu duenez, dantzatzeko lauburu osatzen duten galtzada harrietako baten ertzen batekin aztapatzeko arriskua dagoela azaldu du.

Festetako dantza saiorako berritar jantzia jantzen dute dantzariak, herriaren aurrera ateratzeko. Zortzikoaren akabera, korroa osatzen dute dantzariak, Aldazek azaldu duenez, "nik

orduan topearena egiten dut, horrela saiatzen naiz guztiak erritmo berean joan daitezen. Horrela errazagoa da, aldapak zaildu egiten baitu". Lizarragan ere gizonezko gutxi animatzen dira dantzatzera.

Dantza egiten den egun horretan kontzejuko presidentek Lizarragako bandera eramaten duela jakinarazi du Aldazek. Udako kideak ere egoten dira. "Eta gustatzen zait erakundeak herrira etortzea". Horregatik, berak gonbidatuta, herrian festetan egon dira bere koalizio politikoko bereko Maria Solana Arana (hezkuntza kontseilaria zenean) eta Nafarroako Parlamentuko presidente Unai Hualde Iglesias, aurten.

Udako festetan plazan musikariendako kioskoa jartzen dute eta plazak dantzaldiak, herri afariak, ikastolaren barra eta beste hartzen ditu. Festaren bihotza da. Bete egiten da. Aurten are gehiago, pandemiak eragindako etenaren ondoren. "Puro Relajo taldearen igandeko emanaldian jendea, jendea eta jende gehiago zegoen. Plaza lepo zegoen. Dantzaldietan ere gazteak gustura ibiltzen dira. Ordu txikiak arte egoten dira". Aurten plaza zinema areto bihurtu dela ere jakinarazi digu Aldazek, "asko gozatu zuten".

"San Adrian festetan zortziko dantza nik zabaltzen dut"

Kale Nagusia, 8
Etxarri-Aranatz
948 461 703

HORTZ KLINIKA
Etxarri
Eguerdietan zabalik
948 460 315
Kale Nagusia 27
Etxarri Aranatz

IGOA
arroaldegia
948 460 111
Arkuetabide kalea - Etxarri Aranatz

Pintxoak
eta bokatak
IRATXO
TABERNA
ETXARRI
ARANATZ
682 90 02 98

Kaixo
Kafetegia-Jatetxea
Gozatu gurean!
García Ximénez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restaurantekaixo.com

22 UDA SAKANAN ETXARRI ARANATZ

Alfredo Alvaro Igoa

Herriaren erdi-erdian jarri du hitzordua Txaro Garziandia Iriartek, plazan. "Niretako plazan egotea dena izan da, txikitatik hasita. Hemen gauza guztiak egiten genituen: juergak, musika, dantzak, jendarekin egon, paseoa ibili... denetarik". Plaza luzea da eta hura guztia gustatzen bazaio ere, kioskoa da Garziandiak gehien estimatzen duena, "musikaren aldetik asko bizi izan dudalako".

Garai batean herriko banda zen dantzaldiak eskaintzen zituena. "Ni lau urtez egon nintzen bandan klarinetea jotzen. Bandan jo genuen lehendabiziko hiru neskak izan ginen". Dionisio Diez zen zuzendaria. Garziandiak azaldu duenez, "igandero jotzen genuen. Hiruzpalau txanda egiten genituen, eta arratsalde guztian jende pila egoten zen plazan. Ataundik hasita etortzen ziren arratsalde pasa, autobusean". Bandak "festetan dianak jotzen zituen, prozesioan ere, eta festetan kontzertua egiten genuen".

Garziandiak aitortu duenez, "pila bat gustatzen zait dantzatzea". Kioskoari bueltak ematez aparte, "gure garaian, behintzat, beste dantza batzuk ere bazeuden: *al agarrau*, eta denetarik dantzatzen genuen. Ondoren, orkestrak etortzen ziren, Jator eta halakoak. Eta denbora guztia dantzan ematen nuen. Ezpartina batzuk erosi eta festa guztiak auzomotojorik ibiltzen ginen. Jakina, gazteak ginen

orduan, eta ez zegoen besterik. Musika bukatzean etxera joaten ginen, eta kitto". Dantzaldi haietan "ezpartina pila hausten genituen, ez baikeion dantza egiteari uzten".

Kioskoa, eta gehiago

Haren itxura aldaketaren lekuko izan da Garziandia. "Lehen txikiagoa izaten zen; harrizkoa, goian zurak-eta zituen. Behean landareak eta guzti egoten ziren. Txiki gelditu zen eta berria egin zuten, baina ez zen oso ona ere. Oraingoa pila gustatzen zait, oso polita dago". Txikitik kioskoan jolastutakoa da ere Garziandia, "asko".

Handitzean "nobiota" hasi ziren, "nire gizonarekin hemen paseatzen ibiltzen ginen. Makina bat buelta eman ditugu. Edo aulki batean jarrita egoten ginen, hizketan, eta musika entzuten". Garai bateko etxarriarren ohitura hori zen: plazaren luzera guztian aurrera eta atzera paseatzea, orduan eta egun errepidea den zatitik. "Horrela ibiltzen ginen. Kuadrillak ere bai. Neskatok, behintzat, punta batetik bestera. Ez dakit zenbat ginen, bueltaka, aritzen ginen. Eta mu-

" Ezpartina pila hausten genituen, ez baikeion dantza egiteari uzten "



TXARO
GARZIANDIA
IRIARTE

"Gehiena plazan bizi izan dut nik"

Liburutegia punta batean, haurren jolas parkea bestean. Eta tartean bizipen ugari

sika hasten zenean kioskora etortzen ginen, dantzara".

Plazako aulkietan, senargaiarekin ez ezik, lagunekin ere eserita egona da Garziandia, "ez genuen beste leku aproposagorik. Baina, gustura". Udaletxe parkeko zuhaitzen ertzean garai batean festetan suziriak jartzen zituztela gogorarazi du: "Iurrean zulo batzuk egiten zituzten, haietan makila luze batzuk jartzen zituzten eta goian suziriak. Oso politak izaten ziren".

Liburutegia dagoen tokian eskola zegoen. "Hemen pasa genuen gure denbora guztia, plazan gora eta behera, jolasean". Atsedenealdian plazara ateratzen ziren. Herri guztian barna ibiltzen ziren, ordean, pote-potera jolasten zirenean. Dena asko aldatu dela ziurtatu du. "Orain plazara zerbait edatera joaten gara, eta lagunekin gustura egotera. Herriko 'egongela' da

plaza niretako. Gustura ibiltzen naiz hemen: itzalean, paseatzen, norbaitekin hizketan, kontzer-

turen bat baldin badago aditzera etortzen gara... Gehiena plazan bizi izan dut nik".

LEKU ONA TABERNA

Gauero ogitaratekoak
barran

Etxarri Aranatz 948 461 228



Etxarrin uda bizi



UZTAILAK 29 ostirala

Independentziaren bidea argitzera goaz! Ekimena. Sanadrin, Meyetza eta Baizaraigoera.

Oharra: ez ahaztu frontala!

19:00 Ur depositoan elkartu.

20:00 Auzatea, musikaz alaituta, Meyetzeko txokoan.

21:30-23:00 **Independentziaren bidea argitzera goaz!**

23:00 Denak Meyetzan elkartu eta elkarrekin jaitsi.

ABUZTUAK 26 Ostirala

21:00 **The Road.** Hau ez da ikuskizun arrunt bat, plazan.

Xabier Artieda aktore eta abeslari etxarriarra eta Rafa Alcaiza gitarra jolea.

FESTAK

UZTAILAK 29 Ostirala

BEZPERA

16:00-16:45 Etxarri Aranazko

Festetako II. Mus

Txapelketaren izena ematea.

17:00 Etxarri Aranazko Festetako II. Mus Txapelketa.

19:00 Pala partidak. Gure Pilota Elkarsteak antolatuta.

Jare-Nerea / Arhane-Katixa

Irati-Oskia / Iraia- June C.

Onditz-Lexuri / Izadi-June O.

Maialen-Julene / June A.- Olaia

UZTAILAK 30 Larunbata

ETXIA! EGUNE

09:30 Ehiza ibilbidea. Muxar Ehiztari Taldeak antolatuta.

10:00 Futbito txapelketako aurrefinala eta finala, eskole-tan. EGAK antolatuta.

12:00 2021ean jaiotako haurrei zapi-banaketa.

13:00 Festa hasierako suzioria. Kalejira Etxarri Aranazko erraldoi eta buruhandien konpartsa, Etxarri Aranazko gaitero eta Eztanda txarangarekin. Ondoren, Topa, Denak etxia! Festa batzordeak antolatuta.

13:15 Brindisa eta argazkia senideen muralean.

Festa Batzordeak antolatuta.

14:00 Eztanda txarangaren emanaldia, plazan.

14:30 Bazkaria, plazan.

17:00 Eztanda txarangaren kalejira.

18:30 Etorbizuna Euskal Dantza taldearen ikuskizuna, plazan.

20:00 **Etxera bidea gertu.**

Denak etxia manifestazioa. Sarek antolatuta.

20:00 Salbea Andra Mari baselizan, Etxarri Aranazko Abesbatzak eta Parrokiako Abesbatzak kantaturik.

Elizak antolatuta.

20:30 Auzatea Hartzabal, Etxe-Azpi, Udaberri, Larrañeta eta Karrikestu elkarsteen eskutik.

20:30-22:00 Trikiteens taldearekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-04:30 Trikiteens taldearekin gaupasa.

UZTAILAK 31 igandea

ARAÑAZ ELKARTIEN EGUNE

08:00 Gurdi demontie.

EGAK antolatuta.

10:30 Dianak Etxarri Aranazko gaiteroekin.

11:30 Auzatea Gure-Etxea elkarstearen eskutik.

12:30 Herri-kirolak, plazan. Sakanako Aizkora Eskolako ikaslearen erakustaldia.

Apustu konbinatua: Aizkoran, harrian eta trontzan.

13:30 Los Tenampa Mariatxien emanaldia

17:00 Pilota partiduak

Binaka:

Victor - Arbizu /

Bakaikoa - Eskiroz

Masters CaixaBank sailkapen liga:

Urrutikoetxea - Rezusta /

Jaka - Zabaleta

18:30-22:00 Xaibor berria musika ikuskizuna.

20:00 **Amnistiaren bidetik independentzia eta sozialismorantz kontzentrazioa.**

Jarkik eta Askek antolatuta.

20:30 Kostillada Gaztetxean.

EGAK antolatuta..

22:00 Zezensuzkoa.

22:30-00:00 Pantxo Valbuena musikaria.

Festa Batzordeak antolatuta.

22:30 DJ Kemena, gaztetxean. EGAK antolatuta.

00:00 Psychoclownd ikuskizuna.

ABUZTUAK 1 Astelehena

KUADRILLEN EGUNE

11:30 Auzatea Etxe-Azpi elkarstearen eskutik.

12:00 Hurrendako apar-festa.

Oharra: Bainujantzia eta txankletak eraman.

13:00 Bakaiku, Arbizu eta Etxarri Kantuz taldeen musika saioa.

13:00 Etxarriko Buruhandiak eta bonba japoniarrak.

15:00 Herri Bazkaria, plazan.

Festa Batzordeak antolatuta.

15:00 Herri bazkaria, Jardunen txoznaren ondoan. Bazkalostearen, bingoa.

17:30 Txorotxaranga hurrendako kale ikuskizuna.

18:00 Gaztetxera jaitsiera. EGAK antolatuta.

19:00 Kalejira Mutil Gazteak eta Eztanda txarangarekin, gaztetxetik.

EGAK antolatuta.

20:00-22:00 Trikidantz talde-

rekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

00:00-03:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 2 Asteartea

HAURREN EGUNE

08:00 Gurdi demontie.

EGAK antolatuta.

11:30 Auzatea Udaberri elkarstearen eskutik.

11:30-13:30 Jolas-parkea.

13:00 Etxarriko Buruhandiak.

13:00 Swingtronics taldearen musika saioa.

17:00 Futbol-plaza txapelketa, kale nagusian.

17:00-19:00 Jolas-parkea hurrendako.

17:30 Txalupen jaitsiera.

Zubi gorri, presa zahar eta gaztetxetik. EGAK antolatuta.

19:00 XXVII. Play Back txapelketa, plazan.

19:30 Pintxo potea Gaztetxean. EGAK antolatuta.

20:00 Rockalean taldearekin musika.

22:00 Zezensuzkoa.

22:30 Bokata da, txoznan.

Festa Batzordeak antolatuta.

22:30 Musika kontzertuak: Zelanda eta Skakeitan taldeak.

ABUZTUAK 3 Asteazkena

GAZTE TA AITTUN-AMIÑEN EGUNE

11:30 Auzatea Hartzabal elkarstearen eskutik.

12:00 Meza.

Elizak antolatuta.

12:00 Hurrendako apar-festa.

13:00 Etxarriko Buruhandiak eta bonba japoniarrak Bertso-saioa, plazan.

Andoni Egaña, Eneko Lazkoz, Oihana Iguaran eta Iker Zubeldia.

14:30 Aittun-Amiñan bazkaria.

14:30 Bazkaria, Gaztetxe gaineko estalopean. EGAK antolatuta.

16:00 Aitor soinu-jolea eta musikaria.

17:00 Bingoa, Gaztetxean.

EGAK antolatuta.

18:00 Zirika Zirkus konpainiaren **Hemendikara** ikuskizuna.

19:00 Matraka elektrotxaranga. EGAK antolatuta.

20:00-22:00 Dantzaldia, Joselu Anaiak taldearekin.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00 Kontzertuak: Haizkan, Little Martin Selektah eta Akaboh taldeak, gaztetxean.

EGAK antolatuta.

00:00-03:00 Dantzaldia, Joselu Anaiak taldearekin.

ABUZTUAK 4 Osteguna

KINTOEN EGUNE

08:00 Gurdi demontie.

EGAK antolatuta.

10:00-14:00 Munduko arrozak.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatuta.

10:30 Dianak Eztanda txarangarekin. Kintoek etxetik dirua eskatzen dute.

Urteko kintoek antolatuta.

11:30 Auzatea urteko kintoen eskutik.

12:00 Munduko jolasak.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatuta.

13:00 Etxarriko Buruhandiak eta bonba japoniarrak. Eztanda txarangarekin musika emanaldia.

Urteko kintoek antolatuta.

17:00 Eztanda txaranga.

Urteko kintoek antolatuta.

18:30 Ginkana.

Urteko kintoek antolatuta.

20:00 Burrenba Elektrotxaranga.

22:00 Zezensuzkoa.

22:15 2002ko kintoen dantzakia.

ABUZTUAK 5 Ostirala

INUTILLAN EGUNE

11:30 Gosari militarra, plazan.

12:00 Burrenbadia

13:00 Kapea, larrean.

14:30 Bazkaria, plazan.

17:00 Desfilea. Eztanda txaranga.

20:00 Enkarnelada.

Festa Batzordeak antolatuta.

20:30 Pregona.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00 Burrenba elektrotxaranga.

01:00 DJ Azeri, plazan.

05:00 Entrenamendu militarra.

ABUZTUAK 15 Astelehena

ANDRAMAI EGUNA

19:00 Udal taldea udaletxetik Zugarretako ermitara abiatuko da.

Iriesterakoan, etxajua eta otamena.

20:00-23:00/00:00-02:00 Orots taldearekin dantzaldia.



948 460 027
galartxa@galartxa.com
www.galartxa.com

BULEGOA ETA ERAKUSKETA:
Utzubar Industrialdea - ARBIZU





IÑAKI
URTEAGA
ARDOYA

"Bakaiku bi bide garrantzitsuren bidegurutzan kokatuta dago"

Sakana osoa zeharkatzen zuen Santiagoko bideak eta mandazainek erabiltzen zuten bideak Bakaikuko historia baldintzatu dutela esan du Iñaki Urteaga Ardoya historialari bakaikuarrak

Eneida C. M. / Erkuden R. B.

"Bideen artean sortutako herri bat da, eta bideek garrantzia izan dute nortasunean". Bi bide oso garrantzitsu aipatu ditu Iñaki Urteaga Ardoyak. Alde batetik, errege bidearen aldamenean kokatuta dago herria. Bide hauek egiteko Santiyoko bide zaharra berrirabili zuten. Aldi berean, Santiyoko ibilbide zahar hori Astorgatik Bordelera zihoan Iter

32 erromatar bidearen gainetik pasatzen zen. Herrian garrantzia izan duen beste bidea mandazainek erabiltzen zuten bidea zen, Gipuzkoarantz joaten zena.

Santiyo

Jimeno Juriok *Rutas menores de Santiago* liburuan aipatzen du Santiyoko bide zaharrean Bakaiku ezinbesteko "igarotze herria" zela. Bide hori erromatar garaiko Iter

32 bidetik pasatzen zen. Zamartzen egindako indusketei esker "ziurtatu" daiteke Astorgatik Bordelera joaten zen galtzada hori Sakana ia osotik pasatzen zela.

Urteagak azaldu duenez, gaur egungo "imaginarioan" galtzada batek harlauza handiak ditu, baina hori bakarrik hirietan gertatzen zen. Ikerlariak aurkitu dute erromatarrek galtzadak harri kokorrek egiten zituztela. Zabalera oso handia zuten, lau edo sei metroko zabalera, beraien helburua bertatik gurdiak pasatzea baitzen". Bide hauek, gainera, oso zuzenak ziren, Bakaiku zeharkatzen duen eta Iturmendiko Aitzagara, Urdiainera eta Altsasuko Santo Kristo Otdiakoara doan bidea bezala.

Zantzuak

"Bide asko daude. Santiyoko bideko berreskurapen proiektuan laguntzen eta bultzatzen aritu ginen, eta argi dago Sakanatik

pasatzen dela". Bakaiku toki aproposa dela esan du, "botila lepoa" deitutakoa egiten duelako. "Sakana Bakaikun pixka bat estutzen da, eta gero berriz zabaltzen da". Santiyoko bidea "oso bide garrantzitsua" izan zen. Plaza Santiyo deitzen da, Santiago ome-nezko festak ospatzen dituzte eta Santiyo ermita, 1910ean eraikitakoa bada ere, aurretik ere hor zegoela jakin badakite. Ermita dagoen zonaldea Santiyoalde deitzen da eta aldamenean dagoen etxe bat peajarena zen eta, bestea, 1717an ospitalea zela aipatzen da. "Badago beste etxe bat, maskorraren etxea deitzen diotena, eta ez dakigu ostatua zen, baina argi dago Santiyoko bidearekin harremana duela".

XI. mendean Sakanatik pasatzen zen Santiyoko bide zaharra erabiltzeari utzi zioten. Nafarroako Erreina musulmandarrei tokia irabazten joan zen, eta Antxo III. Nagusia erregeak beste bide bat

ireki zuen, Frantsesen bidea bezala ezagutzen hasi zena.

Zamazainak


Santiyoko bidea beste bide batekin gurutzatzen da Bakaikun, zamazainenarekin. Mandazainak Nafarroako erdialdetik Urbasa zeharkatuz itsasorainoko bidea egiten zuten pertsona ziren, eta mandoak erabiltzen zituzten gurdiak garraiatzeko. Burunda aldean oso ogibide garrantzitsua izan zen, eta zenbait bakaikuar mandazain merkatari bihurtu zirela azaldu du Urteagak: "Bat adibidez Goyaren laguna izan zen, eta Goyak erretratu bat egin zion".

Gaur egun, oraindik ere, mandazain horien zantzuak badira herrian. San Anton kofradia urtero biltzen da eta meza eta bazkaria egin ez ezik, mendeak dituen liburu batean kontuak ere egiten dituzte. Bi pertsonaia nagusi daude kofradian: maiordomoa eta beleroa. "liburua ongi irakurri nahiko nuke. Ekonomia kontuak eta zantzu batzuk agertuko dira".

Karlistadak

Mandazainen bide hori bi Karlistadetan oso garrantzitsua izan zela azaldu du Urteagak. "Jakin badakigu gerra hornitzeko base bat izan zela. Fabrika arma fabrika izan zen". Lizarra eta Oñati lotzen zituen bidea zen, eta bide zaharra ere konpondu omen zuten artilleria garraiatzeko. "Herriari bere puntua eman zioten". Karlistadaren ondoren, Bakaikuko demografiaren gainbehera etorri zen. "Bakaikuk 500 bat biztanle zituen garai hartan; gero, beherakada hasi zen".

Gaur egun, Santiyoalden dau den etxe zaharrak konpontzen hasi dira eta horrek "herriari indarra eta iraupenerako grina" ematen dizkiola uste du Urteagak.





IMANOL
ARBIZU

"Guretako txoko berezia da Aitzagako ermita"

Imanol Arbizu Iturmendiko alkateak txikitako eta gaztetako oroitzen "oso politak" ditu Aitzaga ermitaren inguruan.



Eneida C. M. / Erkuden R. B.

Garai batean, Iturmendi ondoan, bazegoen herrixka bat, Aitzaga deitutakoa. Gaur egun, herri haren aztarna bakarria eliza da: Aitzaga Andra Mari ermita. Imanol Arbizu Iturmendiko alkateak iturmendiarrendako "txoko berezia" dela esan du, batez ere udan: "Gaztetan etortzen ginen bai gu bai gure aurreko gazteak. Egia esan, orain gutxiago etortzen dira gazteak".

Bizikletan "buelta bat" ematera joaten ziren, eta ermitaren inguruan jolasean, baloiarekin eta kartetan aritzen ziren. Merendatzera ere joaten ziren. Ibaia ondoan dagoenez, bainatzen ziren eta "lasai-lasai" ibiltzen ziren. Oraingo gazteak ez direla hainbeste joaten eta "pena" ematen dio Arbizuri. "Baten bat etortzen da, baina ez da gu bezala". Oroitzapen politak etortzen zaizkio. Oraindik ere, noizean behin, udan, kuadrillarekin joaten dela azaldu du: "Azkeneko urteetan etorri izan gara, baina egia da urte asko etorri gabe egon gara. Esaten dugu: goazen Izarara! Eta merendua ekartzen dugu". Izara deitzen diote Aitzaga ermitari. Beste hainbat modutara deitu izan zaio ere. Dokumentuetan Aycaga, Huecaga, Eitzaga,

Izaga eta Icaya agertzen da, eta herritarren artean, Aitzaga, Aizara edo Aizaga.

Abuztuaren 15ean, Ama Birjinaren egunean, meza egiten dute ermitan. Urtean irekitzen duten aldi bakarrenetarikoa da. Ezkontzak ospatu izan dituzte bertan. Barrutik "ongi" dagoela esan du Arbizuk, "zainduta". Barruan Ama Birjinaren irudia dagoela eta goian koro antzeko bat duela azaldu du. "Okerrena argi gutxi duela da".

Ermita oinez herritik hamar edo hamabost minututara dago, eta galtzadaren bidea ere nahiko gertu pasatzen da. "Galtzadaren

bidea zirkularra da, baina bidetik herrirako bidean ateratzen zaren hemendik pasatzen zara".

Erdi Arokoa

Aitzaga ermita haitzez inguratutako muino baten gainean dago, Burunda ibaitik metro gutxira. Erdi Aroko eraikina da, erromaniakoa, eta bertan egondako herrixkaren eliza izan zen, XI. edo XII. mendetik XIV. mendera amaierara arte. Mende horretan izandako etengabeko gerra eta harrapakariengatik Burunda aldean zeuden hamazazpi herrietatik XV. mendean sei herri finkatzera pasa ziren: Bakaiku,

Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olazti eta Ziordia. Aitzaga ermita lehen aldiz 1196ko Leireko monasterioko dokumentu batean aipatu zuten.

Balio artistiko handia duen ermita da. Haraneko erromaniako estilokoa da. Gaur egun, ez da

"Galtzadaren bidea zirkularra da, baina bidetik herrirako bidean ermitatik pasatzen zara"

estilo honetako eraikin askorik geratzen. Ermitaren barruan zegoen XII. mendeko bataiarria Iturmendiko elizara lekualdatu zuten. "Herri bateko eliza zenez Aitzaga, bataiarria zeukan". Ermitako zenbait kapitel erromaniako parroikia etxean gordetzen dira.

Etorkizunera begira, beldur dira iturmendiarrak; izan ere, proiektuaren arabera, "agian AHTa ondo-ondotik" pasatuko da. "Ez dakit guztiz egia den, baina agian desagertzeko arriskuan dago basiliza". Susmoa baino ez da, baina "pena" izango litzatekeela aitortu du Arbizuk. "Toki hau oso polita eta berezia da".

iraizze
bokatak
948 117 810
ETXARRI ARANATZ

xapatero
taberna
Terraza freskoa eta giro itzela dugu
948 460 162 - Etxarri Aranatz

PORTUKO
Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

Oporretan zure gosaria hemen!



OIHANA GALLO SAN ROMAN

"Iragana eta etorkizuna biltzen dituen leku magikoa"

Oihana Gallo San Romanek Urdiaingo belaunaldi askotako hamar bat emakumerekin hitz egin du Iturri Zaharraren eta parkearen inguruan. Emakumeen bilgunea izan da garbilekua

Eneida Carreño Mundiñano / Erkuden Ruiz Barroso

Iturtxulo kalearen bukaeran, eremu aldapatsu batean, Iturri Zaharra dago, garai bateko labaderoa, eta, goian, parkea. Urdingo txoko horretara garbitzera joaten ziren emakumeei galdetzen aritu da Oihana Gallo San Roman. Profil askotako emakumeen kontakizunak jaso ditu, 90 urte ingurukoak, 80 urtekoak... 70 urteko emakumeek haien amak kontatzen zietenak kontatu dute.

Gazteagoek euren amonek kontatzen zutena kontatzen dute. "Herriko askorendako oso leku kuttuna da. Nik beti esaten dut iragana eta etorkizuna biltzen dituen leku magikoa dela". Garai batean herriko emakumeen bilgunea zen. Orain, goiko parkean, herriko haurrak jolasean ibiltzen dira, etorkizunaren irudi.

Labaderoa

XIX. mendearen amaieran eraikitako garbitokia da; garbitoki

gehienak garai horretakoak dira. Historian zehar izandako generoaren arabera, emakume izateagatik, emakumeek zenbait ardurara eta lan bere gain hartu behar izan zituzten. Horietako bat arropa garbitzearena edo lixiba egitearena (Urdiainen esaten den bezala) izan da. "Lan gogor eta nekea" zela eta baldintza oso gogorretan egiten zutela aipatu dute emakumeek: "Denek aipatu dute indarra behar zela arropa garraiatzeko. Eskuak ur hotzetan sartu behar ziren, eta arropa kolpatu eta astindu. Indar handia behar zen".

Lan oso nekagarria, baina egin beharrekoa zela aipatu dute emakume adinduenek. Etxea eta arropa txukun mantendu behar zituztela ez zuten zalantzan jarritzen. Oso lan gogorra zen, "astin ederrak eman behar genizkien izare" kontatu du emakume batek. Beste batek esan du bere amona lan horiek egitera gauez joaten zela, eta gau osoa pasatzen zuela lixiba egiten, aste osoko arropa garbitzen. Beste batzuk goizean goiz joaten ziren, eta etxeok esnatzerako buelta izaten ziren, arropa garbituta. Garbilekuaren azken urteetan arratsaldean joaten ziren garbitzera.

Xaboa edo sagona etxean egiten zuten, errautsekin. Batzuek arropa garbitokiaren inguruan txintxilikatzen zuten, sasiatan.

Oso preziatuak izaten omen ziren garbitokiaren inguruko landare usainduak, haien usaina arropan gelditzen zelako.

Urdiainen lau garbitoki zeuden, eta auzoka banatzen ziren: Iturri Zaharra, Plaza azpian zegoena, Xumarran oraindik mantentzen dena, eta San Martin kaleko edo Atximistaldeko labaderoa. Azken hori berriena zen. Auzoka banatzen baziren ere, emakume batek kontatu du Xumarran garbilekura joateko ohitura zuela; baina neguan Iturri Zaharrera joaten zela, dirudienek, ura epe-lago egoten zelako. "Oso preziatua zen: udan fresko egoten zen ura, eta neguan epel".

Bilgune

Emakumeak elkartzeko eta sozializatzeko toki bakarra zen labaderoa, eta giro oso ona izaten zen. Haien kontuez hitz egiteko toki seguru eta bakarra zen. Herrian gertatutakoak hitz egiten zuten, emakumeen kontuez, seme-alaben garapenaren ingurukoak... 50 urte inguruko emakumeek gogoratzen dute oso txikiak zirela amari laguntzeko aitzakiarekin joaten zirela, bertako

"Labaderoak emakumeak elkartzeko eta sozializatzeko toki bakarrak ziren"

kontuak entzutera. Adin eta maila ekonomiko askotako emakumeak biltzen ziren.

Aspaldi utzi zion etxeko arropa garbitzeko lekua izateari. Emakume gehienek aipatu dute garai batean ura "bar-bar" joaten zela, eta orain ur hari bat baino ez dagoela. Gaur egun estalperik gabe dago, eta lauki bat dago.

Labaderoaren ondoan aska bat dago, eta bertako paretan gurutzea edo -Urdiainen deitzen dioten bezala -krutzea. Kondairak dioenez, krutze hori ongi bustiz gero, hurrengo egunetan euria egingo du. Emakumeek askotan aipatu dute Iturri Zaharreko harria jentilek Sarabetik ekarri zutela, eta Satrustegik jaso zuen San Juan bezperan emakumeak bertara joaten zirela, orrazia uretan bustitzen zutela eta orraztu egiten zirela.

Herriko parkea

Iturri Zaharraren gainean dagoen parkeak 50 urte baino gehiago ditu. Garai batean soro pribatuetan zegoen, eta oraindik harrizko ate batetik pasa behar da sartzeko. Erdialdean harrizko putzu bat dago, urik gabe, eta bertan haurrak eta gurasoak esertzen dira, bilgune bezala. Bost hamarkada hauetan parkea itxuraz asko aldatu da, eta herriko haur askok mutxikan ibiltzeko erabiltzen dute. 2016an ingurura moldatutako parkea egin zuten. Hiru gune ditu.

**ISOLAMENDUAK
ISOLAGOIEN
AISLAMIENTOS**

**Energia aurreztu zure etxea isolatuz
Obrarik gabe
Hormen arteko intsufrazio sistemak**

FINANTZATZEKO AUKERA

ISOLAGOIEN 660 091 456 - 647 913 740
ALTSASU - NAFARROA



Erkuden Ruiz Barroso

Altsasuarren txoko gogokoena zein den galdetuta, gehienek San Pedro aipatuko dute. Urdiainekin elkarbanatzen duten ermita bada ere, altsasuarrendako berezia da, eta hala da Naiara Diezenda-ko ere. Altsasun bertan dagoen natura espazio bat dela esan du saskibaloijokalaria izandako altsasuarrek. Ekainaren 29an ermitaren inguruan ospatzen den festa berarendako "oso polita" dela esan du ere.

Erromeria

San Pedro eguna altsasuarren egutegitan gorritz markatutako eguna da. "Herri osoa egoten gara hor, kuadrillakoekin elkartzen gara eta guztiak hor egoten gara". Herrikideekin elkartzea eta mahaiz mahai ibiltzea "oso gauza garrantzitsuak" direla azaldu du Diezek. "Hori hor bakarrik gertatzen da, edo herri txiki batean". Altsasukoendako zerbait "normala" da, baina mundua ikusi ondoren - "beste leku batzuetan egon naiz"- bueltatzean zein garrantzitsua den ikusi duela esan du, "guretako hain arunta den gauza bat".

San Pedroko ingurua ekainaren 29ko ospakizunetarako ez ezik, "paseotxo" bat emateko ere leku aproposa dela esan du saskibaloijokalaria. "Gurasoekin eta lagunekin askotan joaten naiz. Ez bakarrik San Pedro, inguru guztia da ederra. Dantzalekun pa-

seatzen garenean ere izugarria da". Txoko "berezia" dela esan du. "Natura hor daukazulako, Altsasun bertan, ez da autoa behar". Naturan bertan egotea azpimarratu du Diezek.

Ermita

San Pedro basiliza Altsasu eta Urdiaingo mugan dago, Sanpedrozelaian, harizti baten erdian. Laukizuzen itxura du, eta bi isuriko estalkia dauka. Aldarea Urdiaingo aldean dago, eta sainduaren irudia dago. Hegoaldeko atean A/U letrak daude, bi herrien

arteko muga zehazten dutenak. Altsasuarrek ekainaren 29an ospatzen dute erromeria, eta hurrengo igandean urdiaindarek. Kondairaren eta ermitaren ate nagusiaren gainean dagoen harlauzaren arabera, 717. urtean Gartzia Ximenez Nafarroako Errege bertan koroatu zuten.

2020ko maiatzaren 10ean oinaztura batek Sanpedrozelaiko haritz bat jo zuen, eta haritza barrutik erre zen. Haritz horren pean San Pedro gunean Altsasuko txistulariak aritzen ziren. "Aste pare bat pasata han egon nintzen haritza ikusten. Erromeria zirudien, jende guztiak ikusi nahi zuen". Pena izan zela esan du Diezek, "baina horrela gertatzen dira gauzak naturan. Hor jo zuen oinazturak, baina orain berpizten ari da".

"Natura hor daukazulako, Altsasun bertan, ez da autoa behar"



NAIARA
DIEZ
FERNANDEZ

"San Pedron gertatzen dena hor bakarrik gertatzen da"

Mundua ikusi ondoren, Naiara Diez saskibaloijokari ohiarendako are garrantzia handiagoa hartu dute San Pedroko ermitak, inguruak eta bertan ospatzen den erromeriak

BIL TOKI
TABERNA • JATETXEA

Eguneko menua 11 €

Menu berezia 15 €

Telefono berria:
948 562 348 - Altsasu

alzanía
curvados alzanía s.l.

Kurbatuak,
galdaragintza fina
eta arotzeria metalikoa

www.curvadosalzanía.com
info@curvadosalzanía.com
948 467 773
697 874 987 - 697 875 909
Isasia industriagunea,
2 nabea - Altsasu

Halcón VIAJES
Zure konfiantzako agëntzia

ESM
EZAZU
ERRESERBA

**LAZKEN
ORDUKO
ESKAINTZAK**

948 04 10 02
San Juan kalea, 52 | Altsasu
halcont60@halcon-viajes.es

Txalaparta
TABERNA

**Udako giroa
ezagutu!**

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU



JOSE MIGUEL GOROSPE GALBETE

"Umearendako, iturriaren jabea naiz"

Olatzagutiako Vicente Argomaniz plazan iturri bat dago. Iturri hori ez da betidanik bertan egon, lehen pixka bat aurrerago zegoela azaldu du Jose Miguel Gorospe Galbete olaztiarrak



Iturria

"Lehen iturria zegoen aurrean dagoen plazatxo horretan. Etxeetan behiak, txerriak eta ahuntzak zeuden, eta goizean korneta jotzen zuten eta ahuntz guztiak ateratzen zituzten eta mendira eraman. Gauean etxera ekartzen zituzten berriz". Etxe guztien aurrean egurra egoten zen, eta egurra menditik astoek garraiatzen zuten. Astoak, beraz, etxeetako abereen artean zeuden ere. "Horrela ibiltzen ginen". Etxeetan abereak zeudenez, iturriaren ondoan abereek edateko aska zegoen.. "Jendeak abereendako bertatik ateratzen zuen ura".

Ondoren, Arrano iturria lekualdatu zuten eta gaur egun dagoen tokian, Vicente Argomaniz plazan, jarri zuten. Gorospek ez du gogoan noiz egin zuten lekualdaketa. Orain, Olatzagutiako Udalak obrak eginen ditu plazan: plazako argiteriaren instalazioa berritu eta luperatuko du, baita euriaren urak kanalizatzeko eta plazaren lurzorua aldatzeko lanak ere. "Horregatik orain abandonatu samar dago". Orokorrean plaza horretara ez dela jende asko joaten esan du Gorospek, "ez dakit eserlekuak gustatzen ez zaizkielako den edo zergatik den". Haurrak, aldiz, askotan ibiltzen dira bertan jolasten.

Iturria zikina dagoela ikusten badu, Gorospek erratza hartu eta kanpotik eta barrutik garbitzen du. "Haurrak egoten dira gauzak barrura botatzen, eta nik ikusten dudanean soberan dagoela, garbitzen dut". Berak nahi duelako egiten du. Tutu malgu bat ere jartzen du iturriaren txorrotan ureztatzeko, eta haurrak harekin ibiltzen dira jolasten. "Leku batetik bestera ibiltzen dira. Aurreko egunean haur bat tutuarekin aritu zen eta esan nion belarretan uzteko bestela apurto egingo zela. Etxera joan zen, eta esan zien: 'Badakizue zer esan didan iturriaren jabeak? Tutua belardian uzteko'. Umearendako, iturriaren jabea naiz".

Iturriaren ura ez edateko gomendatzen duen kartel bat dago, "edangarria da, baina ez du klororik". Iturburu harrobiaren ondoan dago, bidegurutze batean, "bide bat harrobira doa eta bestea portura, eta bien artean iturburu bat dago. Bertan iturri bat eta depositu bat daude, iturriaren gainean, eta depositu horretatik herriko hiru iturrietara eramaten dute ura".

Eneida Carreño Mundiñano / Erkuden Ruiz Barroso

Azaroan 88 urte beteko ditu Jose Miguel Gorospe Galbete. Olatzagutian jaio zen, Vicente Argomaniz plaza inguruko etxe batean, eta bertan bizi da gaur egun arte. Bizitza osoa inguru horretan bizi izan da. Bere garaikide asko bezala, ez du bizitza erraza izan. Oso txikia zela, bost urterekin, ama galdu zuen; eta aitak lau haurrekin aurrera atera behar izan zuen.

Ondoren, 40 urtez harrobian lan egin zuen. Hamabi orduz egiten zuten lan, gauez eta egunez; aste bat gauez eta beste aste bat egunez. "Etxera iristen ginen eta ez genuen familiarekin egoteko tarterik; ohetik lanera eta lanetik ohera". Arrisku handiko lana zen harrobiarena, harkaitzen azpian palarekin haitzak kargatzen ibiltzen zirelako. "Modu txarretan". Horregatik, meatze estatutua jarraituz, 58 urterekin jubilatze aukera izan zuen. Baina erretiratu eta gutxira emaztea "goiz" hil zen.

Vicente Argomaniz plazako ingurua ongi ezagutzen du Gorospek, bertakoa baita, eta bertan pasatzen duelako denbora. Vicente Argomaniz Olaztiko Katedradun bat izan zen, Gorospek azaldu duenez. Berak ezagutu zuen; "mutilzarra zen, zenbait anai-arreba ziren eta betidanik familiak negozioak izan ditu: ultramarino dendak eta horrelakoak. Garai horretan egoten zirenak, denetarik saltzen zuten denda horietakoak". Argomaniz beti kanpoan bizi izan zela gaineratu du, ikasketak egiteko kanpora joan zelako. "Plaza honetara etortzen naiz, hemen jaio nintzen eta hemen jarraitzen dut. Beti bizi izan naiz hemen".

"Plaza honetara etortzen naiz, hemen jaio nintzen eta hemen jarraitzen dut"

ALEJO
ITURGINTZA

ISMAEL PEREZ
San Franzisko kalea, 2
Olazti
680 294 842
fontaneriaalejo@hotmail.com



Iturgintza



Galdaragintza



Gas berogailuak



Energia berriztagarriak



Gasoil depositoak



Komunetako eta sukaldetako berrikuntzak



Komunetako altzariak



GEMA,
ERKUDEN, SESI,
MARI CARMEN
ETA JUANA

"Ermita emakumeak elkartzten garen toki bakarra da"

Belaunaldiz belaunaldi, Ziordiko herrian dagoen ermita emakumeen elkargune izan da. Gaur egun, Gema Aguirrek, Erkuden Izaguirrek, Sesi Arregui, Mari Carmen Arreguik eta Juana Mugicak, besteak beste, udako arratsaldeak pasatzen dituzte bertan



Eneida Carreño Mundiñano /
Erkuden Ruiz Barroso

Ziordiko beheko auzoan txoko berezi bat dago: Mirarien Andre Mariaren ermita. XVI. mende inguruko eraikina da, baina mendeetan zehar hainbat zaharberritze izan dituena. Nabe bakarrekoa da, eta planta ia karraua da. Bi isurkiko estalkia dauka. Agian deigarriena da herriaren erdian dagoela da, ibaitik gertu.

Barruan 1570 urte inguruko eskultura dago: ama birjina haurrarekin. Errenazimendu estiloko XVI. mende erdialdeko erretaula bat ere badago, urre kolorearen gainean gorritz eta urdinez koloreztatua.

Baina, agian, ermitaren alderdi deigarriena da Ziordiko emakumeen bilgune izan dela belaunaldiz belaunaldi. "Betiko gauza bat, auzoko zerbait" dela esan dute gaur egun biltzen diren lau emakumeek, Gema Aguirre Arreguik, Erkuden Izaguirre Larrazak, Mari

Carmen Arregui Aguirrek eta Juana Mugica Martinezek. Dena dela, ez dira bakarrak, izan ere, pasatzen den jendea ere gonbidatzen dute. "Agian norbait pasatzen da eta gurekin esertzen da".

Haien amen ohitura jaso eta jarraitu dute. Eulalia, Magdalena, Gorritxo, Angeles eta abar izan ziren aurretik bertan elkartzen zirenak. Beheko auzoko bizilagunak dira, "zerbaitek elkartzen zituen". Beheko auzoko emakumeak elkartzeko toki bat da. "Lehen etxetako atarrietan elkartzen ziren, aulkiak ateratzen zituzten eta bertan egoten ziren. Toki gehiagotan elkartzen ziren". Baina, gaur egun, ermita bihurtu da emakumeen elkargune "bakarra".

Jostunak

Ermitan elkartzen direnean joste lanak egiten dituzte. Denak jostunak dira, eta nork bere txokoan bakarrik lan egin beharrean, bertara joaten dira, elkarren

ondoan jostera. Ikasturtean zehar, urritik maiatzera, jostuntza ikastaroa ematen dute Ziordian, eta udan Altsasura joaten dira, "bakoitzak nahi duelako". Orduan, asteko lanak egitera joaten dira ermitara. Bi edo hiru ordu pasatzen dituzte bertan, "agian bostetan etortzen gara eta zortziak arte egon".

Bertan pasatzen duten denbora ongi baliatzen dute, eta hainbat jantzi josten dituzte: neska jantzirako mantala eta zapiak, gortinak, kaikuak eta abar. Jostun bakoitzak bere gauzak eramaten ditu, baina behar izatekotan, elkarbanatzen dute. Gehienbat aholkuak elkarbanatzen di-

"Ermitan elkartzen direnean joste lanak egiteaz gain hitz egiten dute ere"

tuzte, joste lanak ez ezik, "hitz egiten ere egiten dugulako".

"Denetariko gaiei buruz hitz egiten dugu: sukaldea, errezetak, garbiketa trikimailuak...". Txutxu-mutxuak ere bai. "Ziordiko Salvamen zerbait gertatzen bada, hori ere komentatzen dugu". Beheko eta goiko auzoetan gertatzen dena komentatzen dute, baita erdikoan ere.


Zaindaria

Erkuden da ermitaren arduraduna. Bera arduratzen da ermita garbi egoteaz, mahai oihalaz... Norbait bisitan joaten denean atea irekitzen du eta berak erakusten du. Urtean zehar egin behar direnak antolatzeaz arduratzen da ere. Gemak loreekin laguntzen dio. Besteek garbiketekin laguntzen diote, baina arduraduna Erkuden da. Izan ere, ermitatik hurbilen bizi dena da, eta ia horregatik hartu zuen lana. Gainera, emakumeek aipatu dutenez, "hemen kargu bat hartzen duzuenean bizitza guzti-

rako da". Ermitaren atariko plaza txoaz ere arduratzen da zaindaria. "Ni Sesiri laguntzen hasi nintzen, Ziordira bizitzera etorri nintzenean". Sesi Arregui Arregui 91 urteko emakumea da, eta ermitaren aurreko zaindaria da.

Azken hilabetetan ermita polita jartzen denbora gehiago pasa dute, abenduan izandako uholdeek eragina izan baitute erai-kinean. "Ura aldarearen erdiraino iritsi zen". "Pena" ematen zuela azaldu dute emakumeek. Baina dagoeneko mezak eta bisitariak hartzeko prest dago.

Maiatzetik abuztu bukaerara arte edo irail hasiera arte, larunbat arratsaldeetan, mezak ermita honetan egiten dira. Ikasturtean zehar, ordea, Agerkunde Elizan egiten dira, "goiko elizan". Lehen mezak igandean egiten zirela azaldu dute emakumeek, baina orain herrian apaizik ez dagoenez, eta Altsasukoa etortzen denez Ziordira, ordutegi horretan egin behar dituzte.



**Herri txikien
xarma,
Ziordia**

30 UDA SAKANAN AGENDA

ITURMENDI

UZTAILAK 30 Larunbata
18:00 Apar festa.

ABUZTUAK 15 Astelehena
12:00 Ama Birjinaren eguneko meza, Aritzaga ermitan.
Ondoren, auzatea Aritzaga elkartearen eskutik.

URDIAN

FESTAK

ANDRAMAUZTUKO FESTAK

ABUZTUAK 13 Larunbata
Gauean, Haizkan eta Zopilotes Txirriaos taldeen kontzertua.
Ondoren, Ur txirrista.

ABUZTUAK 14 Domeka

12:00 Etxajua.
16:00 Mus eta briska txapelketak.
16:00 Haurrendako jolasak.
20:00-22:00 Ken Bat taldearekin dantzaldia.
00:00-03:00 Ken Bat taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 15 astelehena

12:00 Meza, Aitzibergo basilizian.
Ondoren, auzatia.
14:30 Bazkaria, Urriztiko zelaietan.

20:00-22:00/00:00-03:00
Trikiteens taldearekin dantzaldia.

ABUZTUAK 17 Asteazkena

12:00 Bioletak bakearen alde tailerra, liburutegian.
Nafarroako Gobernuo Bakea eta bizikidetzatza lantzen duten liburutegiak programa. 5 eta 8 urte bitarteko haurrendako.

ABUZTUAK 31 Asteazkena

12:00 Begirada ezberdin baten bila tailerra, liburutegian.
Nafarroako Gobernuo Bakea eta bizikidetzatza lantzen duten liburutegiak programa. 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako.

ALTSASU

ABUZTUAK 3 Asteazkena

18:00 Batzarra, Gure Etxean
Poliziarik ez! Langileon aurkako errepresioa gelditu batzarra.
Isunen kontrako taldeak deituta.

ABUZTUAK 8 Astelehena

12:00 *Osasun publikoaren defentsan* elkarretaratzea, osasun etxearen aurrean.

Osasun publikoaren aldeko plataformak antolatuta.

ABUZTUAK 15 Astelehena

12:00 *Osasun publikoaren defentsan* elkarretaratzea, osasun etxearen aurrean.
Osasun publikoaren aldeko plataformak antolatuta.

ABUZTUAK 22 Astelehena

12:00 *Osasun publikoaren defentsan* elkarretaratzea, osasun etxearen aurrean.
Osasun publikoaren aldeko plataformak antolatuta.

ABUZTUAK 29 Astelehena

12:00 *Osasun publikoaren defentsan* elkarretaratzea, osasun etxearen aurrean.
Osasun publikoaren aldeko plataformak antolatuta.

ABUZTUAK 1 Astelehena

12:00 *Osasun publikoaren defentsan* elkarretaratzea, osasun etxearen aurrean.
Osasun publikoaren aldeko plataformak antolatuta.

ABUZTUAK 28 Igandea

17:30 IV. Merkataritza Azoka, plazan.
ADEk antolatuta.

IRAILAK 1 Osteguna

10:00-14:00 Festetako kartel lehiaketako erakusketa, Iortia kultur gunean.
Irailaren 1etik 11ra.

IRAILAREN 1ETIK 4RA

19:00-00:00 Garagardo azoka.
Kukuerreka elkarteak antolatuta.

IRAILAK 2 Ostirala

Arratsaldean Kontzertuak, Arkangoa eta Idergi tabernen terrazan. The Clayton, Haizkan eta Deserrite taldeak.

ZORION AGURRAK



Miren
Zorionak Miren! Egun ona pasa eta jarraitu orain arte bezain jatorra! Muxu pila bat etxearen partez

JAIOTZAK

- **Fredman Andoni Martinez Vasquez**, uztailaren 17an Olaztin
- **Anne Garcia Salazar**, uztailaren 20an Altsasun
- **June Martinez de Ordoñana Aranburu**, uztailaren 24an Iturmendin

EZKONTZAK

- **Miguel Angel Egido Cerdan eta Oihane Calvo Munarriz**, uztailaren 16an Ziordian
- **Adur Bakaikoa Goikoetxea eta Oihana Hualde Ulaiar**, uztailaren 18an Arbuzun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



Gogatu naturak eskaintzen duen askatasunaz eta gure etxearen karma eta lasaitasunaz

Familia-tratua, euskalduna, tradizioa eta kultura

Irmo Goena auzoa 20577 Antzuola (Gipuzkoa) 943 76 63 10 • info@ibarre.com • www.ibarre.com

ESKELA

**Bautista
Barandalla
Beltza**

Etxarri Aranatz hil zen, 2022ko uztailearen 22an, 89 urte zituela

Bere andreak, Mari Carmen Fernandino; seme-alabek, Irantzu eta Joseba Artola, Urtzi eta Edurne Albarrazin, Aberri eta Aloña Basterretxea; bilobek, Izei, Goiatz, Elaia, Itzea, Aner; anai-arrebek, ezkon anai-arrebek eta gainerako ahaideak.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertu nahi ditu

ESKELA

**Bautista
Barandalla
Beltza**

Etxarri Aranatz hil zen, 2022ko uztailearen 22an, 89 urte zituela

Zu ondoan zintugula hasi ginen,
zuk erakutsitakoarekin batera,
jarraituko dugu bidea

Jeingenekoa
Etxarri Aranatz

ESKELA

**Bautista
Barandalla
Beltza**

Jeingenekoa osaba Bautiste

Zu sasoye, umore ona ta
kontubek beti goguen.

Arreba ta illebak
Etxarri Aranatz

ESKELA

**Bautista
Barandalla Beltza**

Lagun,
mendian gora-gora abiatu zara...

Ernesto, Jexus Mari, Juan José, Patxi eta neskak

ESKERTZA

**Francisco Javier
Lazkoz Legarra**

Erakutsi diguzun guztia eta
zure maitasuna beti gurekin egonen dira.

Esker beroenak egun hauetan
gurekin egon zareten guztioi.

Etxekoak
Egiarreta Arakil

ESKELA

**Fernando
Goya Garciandia**

Betiko gu bihotzetan

59.ko kintuek
Etxarri Aranatz

OROIGARRIA

**Igor
Rosa Flores**

II. urteurrena

(2020ko uztailearen 30ean hil zen, 46 urterekin)

Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza, beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzetan

Etxekoak

OROIGARRIA

**Gorka
Echarri Soto**

VI. urteurrena

(2016ko abuztuaren 17an hil zen)

Beti gure bihotzetan

Zure familia



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

HERIOTZAK

- **Francisco Javier Lazkoz Legarra**, uztailearen 20an Egiarretan
- **Socorro Begiristain Fernandino**, uztailearen 22an Etxarri Aranatz

- **Fernando Goya Garciandia**, uztailearen 22an Etxarri Aranatz
- **Bautista Barandalla Beltza**, uztailearen 22an Etxarri Aranatz

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



ORLECHY
-RENOVABLES-

Biomasa galdarak
Estufak eta tximiniak
Geotermia eta aerotermia
Instalazio eta mantentze zerbitzuak
Pellet salmenta online
Autokontsumo instalazioak



948 562 604 | 603 417 554 | Gipuzkoako kalea, 17 - Aitzasu
www.orlechy.com · info@orlechy.com